




XX. mendearen amaierako datu soziolinguistikoen bilduma

Euskararen egoera

Lasarte-Orian

Euskararen egoera Lasarte-Orian

**XX. mendearen amaierako datu
soziolinguistikoen bilduma**



LASARTE-ORIAKO UDALA

Egilea:

Iñaki Arruti Landa.

Idazkeraren zuzentzailea:

Joan Ignazio Bereziartua Iraola.

Dokumentuaren itxuratzzaileak eta maketatzzaileak:

Joan Ignazio Bereziartua Iraola eta Iñaki Arruti Landa.

Argitaratzailea:

Lasarte-Oriako Udala. Euskarako Batzordea.

© Lasarte-Oriako Udala.

Azalaren diseinatzailea eta edizioaren paratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea – e3 Komunikazio-Zerbitzuak

Inprimatzailea:

Arteder

Legezko gordailua:

SS-1253/01

Lasarte-Orian, 2001eko abenduan.

Aurkibidea

1.- Hitzaurrea	5
2.- Zertzelada historikoak	7
A) Bilakaeraren laburpena zenbakietan	10
B) Ordezkatzeko prozesuaren urrats kualitatiboak	11
C) Azken 35 urteak	13
3.- Lehen hizkuntza	14
A) Sarrera	14
B) Datu orokorrak	16
1) Lehen hizkuntza 1996ko erroldan	16
2) Lehen hizkuntzaren bilakaera 1986tik 1996ra	17
C) Lehen hizkuntza adin-tarteka	18
D) Lehen hizkuntza auzoka	21
E) Inguruarekiko konparazioa	22
4.- Hizkuntzazko gaitasuna	23
A) Sarrera	23
B) Datu orokorrak	24
1) Hizkuntzazko gaitasunaren datu orokorrak, 1996ko erroldakoak	24
2) Hizkuntzazko gaitasunaren bilakaera 1981etik 1996 arteko erroldetan	25
3) Hizkuntzazko bilakaera	26
C) Adin-taldeka	31
1) Hizkuntzazko gaitasuna adin-taldeka 1996ko erroldan	31
2) Hizkuntzazko gaitasunaren eboluzioa adin-taldeka (1981-1996)	35
3) Hizkuntzazko bilakaera pertsonala adin-taldeka	35
D) Auzoka	38
E) Inguruarekiko konparazioa	39
5.- Irakaskuntza	40
A) Irakaskuntza ez unibertsitarioa	40
1) Ikastetxeen, eskola-ereduen eta ikas-zikloen gaineko zenbait azalpen	40
2) 2000/2001 ikasturteko ikastereduak	43
3) Ikastereduen bilakaera, 1980/1981 ikasturtetik 2000/2001 ikasturtera	44
B) Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea	48
1) 1987/1988 ikasturtetik 1999/2000 ikasturtera izandako bilakaera	48
6.- Euskararen kaleko erabilera	53
A) Sarrera	53
B) 1990 eta 2001 bitarteko neurketak	54

C)	Emaizten irakurketa	55
1)	Neurtutako pertsonak	55
2)	Ondorio nagusiak	55
3)	Adin-taldeak	56
4)	Sexua	56
5)	Auzoak	57
6)	Asteko egunak	58
7.-	Etxeko hizkuntza	59
A)	Sarrera	59
B)	Datu orokorrak	60
1)	Etxeko hizkuntza 1996ko erroldan	60
2)	Lehen hizkuntzaren bilakaera 1991tik 1996ra	60
C)	Euskararen erabilera etxean eta kalean	61
8.-	Euskarak hainbat eremutan duen egoera	63
A)	Famila	65
B)	Lagunartea	66
C)	Aisialdia eta kultura	68
1)	Haurrak eta gaztetxoak	68
2)	Gazteak, helduak eta adinekoak	69
D)	Zerbitzuak	70
E)	Irakaskuntza	73
F)	Komunikabideak	75
G)	Administrazioa	76
H)	Lan-arloa	78
9.-	Ondorio nagusiak	80
10.-	Berreskuratzeko prozesua eta behar dituen baldintzak	84
A)	Euskararen erabilera normalizatu behar da? Zergatik?	84
B)	Zer da euskararen erabilera normalizatzea?	85
C)	Zer egin behar da horretarako?	85
D)	Nola egin behar da?	88
11.-	Eranskina: irakaskuntzako datuak	93

1.- Hitzaurrea

Hizkuntza bat gizarte batean normalizatuta dagoenean, gizarte horretako pertsonak (hiztun-komunitateak) hizkuntza hori erabili egiten dute beren zeregin guztietarako (edo gehienetarako behintzat). Erabili egiten dutelako, badakite hizkuntza hori, eta, gauzak egiteko (normal bizitzeko) balio dienez gero, maite dute hizkuntza hori.

Erabili → Jakin → Maite

Hizkuntza bat gizarte batean normalizatuta ez dagoenean, ordea, gizarte horretako pertsona batzuek (ez gehienek) erabili ohi dute hizkuntza hori, eta, erabili ere, zeregin batzuetarako –gutxienetarako, “normalean”– erabili ohi dute. Bestalde, hizkuntza batek eguneroko zeregin gehientsuenak betetzen ez dituenean, ez da beharrezkoa izaten (ezin da normal bizi hizkuntza horrekin), eta, beharrezkoa ez bada, ez dute gizarte horretako pertsona guztiak jakiten. Eta, ez badakite, nola maita?

Ez da zehazten erraza hizkuntzak zergatik eta nola galtzen diren, eta are zailagoa da zergatik eta nola biziberritu behar diren esatea eta egitea.

Pertsona asko eta ezberdinak, iritzi ugari eta ezberdinak, esparru anitz eta ezberdinak –aldagai asko, azken batean– gurutzatzen dira hizkuntzaren kontuan. Ordea, asko izate horretarako bultzatu behar gaitu aldagai horiek ahalik eta ongien zehaztera, elkarri nola eragiten dioten ondo jakitera: hizkuntzen fenomenoak esplikatzen, azken batean.

Hizkuntzen fenomenoak eta egoerak esplikatzeaz gain, ordea, hizkuntzekin zer egin nahi dugun jakitea izan daiteke lehenbiziko urratsa. Izan ere, hizkuntzak, kode-multzoko bat ez ezik, berebat dira bizi garen mundu honek duen aberastasun ikaragarri bat. Aberastasun hori bizirik izatea pertsona guztientzat, hizkuntza guztientzat eta munduarentzat berarentzat ere onuragarria delako ustekoa naiz.

Eta iritzi hori ez da jarrera kontserbazionista (kontserban edukitzeko joera duen) baten ondorio. Are gehiago; denborarekin, gauzak aldatu egiten dira, eta hizkuntzak eta hizkuntzen egoerak ere bai..., baina norantz?

Aldaketak ez dira txarrak, berez txarrak ez badira. Txarrak diren edo ez erabakitzea ere subjektiboa den arren, guztiok ingelesez hitz egiten (“eta hanburgesak jaten”) amaitzearen muturraren eta hiztun-komunitate bakoitzak bere esparruan –bere zeregin gehientsuenetarako– bere hizkuntza erabiltzearen muturraren artean, nik behintzat, aldaketak bigarrenerantz nahi ditut, hoberantz izango direlakoan.

Hizkuntzen arteko orekaz ari naizen honetan, ordea, ez naiz ari hizkuntzek duten eskubideez, baizik eta pertsona bakoitzak, hiztun-komunitateen bidez, dena delako hizkuntzan bizitzeko duen eskubideaz. Izan ere, haien bidez hezurramitzen dira hizkuntzak, hiztunetz osatutako komunitateetan hartzen baitute gorputza.

Eta “hizkuntza” hitza aipatzen den bakoitzean “euskara” hitza jar daitekeen bezala, berdin-berdin jar daiteke “estoniera”, “gaztelania” edo “txinera”. Izan ere, hizkuntzen arteko bizikidetzaz eta orekaz (ekologiaz) hitz egiten badugu (izaki bizidun guztiez hitz egiten dugun bezala), esaten dugunak orobat balio behar du hizkuntza guztientzat, hiztun-komunitate guztientzat eta hiztun guztientzat.

Horregatik iruditzen zait euskararen erabilera normalizatu egin behar dugula euskararen herrian.

Eta nola biziberritzen da, bada, euskara? *“Hortxe zegok ba koxka!”*.

Ez dio liburu honek galdera horri erantzunik emango; ez du ere hori helburu nagusia. Aitzitik, helburu askoz ere xumeagoa du: euskarak Lasarte-Orian zer-nolako egoera duen gutxi gorabehera azalduz gero, nahiko; ulertzen lagunduz gero, ongi; aldatzen (hobera) ahalegintzera animatuz gero, oso ongi; eta, hori nola egin arrastoren bat emanez gero, bikain.

Ahalegin horretan, hitzaurrea eta eranskinak kontatu gabe utziz gero, bederatzi ataletan banatu dugu liburua. Lehenbizikoak egungo egoera inguramendu historikoan kokatzea du helburu.

Lehen Hizkuntza, Hizkuntzazko gaitasuna, Irakaskuntza, Euskararen kaleko erabilera eta Etxeko hizkuntza atalek euskararen egoera demolinguistikoa jaso nahi izan dute, hizkuntzazko gaitasunaren gainekoa lehen hirurek eta hizkuntzaren erabileraren gainekoa beste biek.

Euskarak hainbat eremutan duen egoera atalak, berriz, hizkuntzen egoera aztertzerakoan **pertsonen** (demolinguistikari) erreparatzeaz gain, **zereginen** erreparatzeak duen garrantzia azpimarratu nahi izan du alde batetik, eta Lasarte-Oriaren kasuari buruzko hurbiltze bat egin bestetik.

Ondorio nagusi batzuk ateratzeko atrebentzia hartu dut, bai eta egoera hori hobetzeko orientabide batzuk ematekoa ere, *Berreskuratze prozesua eta behar dituen baldintzak* atalean.

Halakoetarako tartea hartzea zilegi bazait, bihoakie nire esker ona Lasarte-Orian euskararen egoera hobetzeko ahaleginak (pertsonalak zein sozialak) egin dituzten eta egingo dituzten guztiei.

Iñaki Arruti Landa

2.- Zertzelada historikoak

Liburu honen helburua ere ez da euskarak mendez mende Lasarte-Orian izan duen bilakaera zehatz-mehatz azaltzea. Hala ere, motxean aritzeak arriskuak badituela jabetuta ere, laburpen txiki bat egitera ausartu naiz, euskararen gaur egungo osasun-maila ulertzeko lagungarria izango delakoan.

"De las 176.297 almas que poblaban Gipuzkoa al realizar el acensamiento, creo bastante exacto calcular, por los datos adquiridos, que las 170.000 hablaban el vascuence y entre ellas las 140.000 hacían uso exclusivo de esta lengua en sus diarias relaciones."¹

Aipamena **1879**koa da. 125 urte besterik ez dira L. Velascok eginiko azterketak azaltzen duen errealitatea (hizkuntzazkoa) zuela Gipuzkoak, bai eta –esan dezkegu, oker handirik egiteko arriskurik gabe– Lasarte-Oriak ere.

Lasarte-Oriak, **1860.** urtean, 563 biztanle zituen, eta, arestiko aipamenak Gipuzkoarako ematen dituen ehunekoak Lasarte-Oriara aplikatuz gero, 540 biztanle euskaldunak izango ziren (%96) (horietatik, 443 elebakarrak –%82– eta 97 –%18– elebidunak). Gainerakoek, 43k (%4), ez zuketean euskaraz jakingo.

Zenbakien zehaztasunak garrantzi berezirik ez badu ere, bide ematen digu esateko Lasarte-Oria orain mende bat herri euskalduna zela (kopuruz) eta euskaraz bizi zela (kualitatez). Bereziki azpimarratzekoa da elebakarren ehuneko horrek adierazten duena; hau da, herriko zeregin gehienak, hizkuntzazko funtzio gehienak, euskaraz egiten zirela.

Euskararen historia sozialak duen bibliografia-eskasiaren mende bada ere, eta, bereziki, Lasarte-Oria 1986. urtera arte herri ez izateak atzera begiratzeko sortarazten dituen zailtasunek mugatuta (oso dokumentazio gutxi dago), biziki osasungarria da Lasarte-Oria zer izan den ezagutzea; batez ere, kontuan izanik oinarri historikoak zenbateko sinesgarritasuna ematen duen biziberritzeko saioak sustatu nahi direnean.

J.M. Aymá-k² honela dio: *"L'actuació política, la del poble i la de l'estament econòmic són els tres eixos entorn dels quals volta el procés de normalització lingüística."*

Hizkuntzen normalizazioan jarduten duten hiru elementu horiek nabarmen agertzen dira Lasarte-Orian euskarak izan duen historia soziala azaltzeko orduan ere, beste udalerrri askotakoa azaltzerakoan bezalaxe.

¹ INTXAUSTI, Joseba.(1990). *Euskara euskaldunon hizkuntza*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.

² AYMÁ, Josep M.(1992). *Alló que no se sol dir de la normalització lingüística*. Barcelona: Ed. Empuries.

Sozioekonomiaren bilakaerak (eta horrek ekarritako hazkunde demografikoek bereziki) azaltzen du, neurri batean, Lasarte-Orian gaztelaniak euskara ordezkatzeko izan duen prozesua.

XIX. mendean, Lasarte-Oriaren ekonomia lehenengo sektorean oinarritzen zen (nekazaritzan eta abeltzaintzan). Orduz geroztik, bigarren sektorearen hazkuntza izan da hizkuntzazko egoeraren aldaketan eraginik handiena izan duen faktorea. Sektore hori XIX. mendearen bukaeran hasi zen indarra hartzen –Brunet lantegia 1845. urtearen inguruan sortu zen, eta hastapeneko 150 langileak 450 bilakatu ziren mende hasierarako–. Horrek iragartzen digu Lasarte-Oriako demografiak jasan dituen hazkunde bortitzetako bat, lehena: 1860. urtean 583 biztanle izatetik **1910**ean 1.872 izatera pasatu zen; hots, mende-erdian, biztanle-kopurua hirukoiztu egin zen.

Mende-hasierako hazkunde horretan, Euskal Herriko barne-migrazioa izan zen nagusi Lasarte-Orian. Hizkuntzari dagokionez, Ana Labakak eta Maria Eugenia Azurzak³ honela diote:

“Euskal Herriaz kanpoko probintzietatik datozen etorkinak urriak dira kopuru aldetik, eta inguruko herrietatik dator batik bat emigrazioa. Prozesu horrek ez du aldaketarik ezagutuko, eta hurrengo 30 urteetan ere etorkinek bide bera egingo dute. Dena den, aipagarria da Euskal Herriko beste probintzietatik Lasarte-Oriara etorri zirenak kopuruz asko ez izan arren, Oriara Bizkaitik (Bilbo) eta Nafarroatik etorri zirenak garrantzi handia izan zutela; izan ere, bilbotarren kasuan, gaztelera ekarri zuten berekin batera.”

Halaber, gogoratu behar da urte horietan euskarak **zapalkuntza politiko garrantzitsua** jasan zuela:

“Hain zuzen, mendearen azken partean, Espainiako Cánovas-en erregimenak eta Frantziako III. Errepublikak, oro har, ez zuten aintzakotzat hartu euskaldungoaren hizkuntza. Botere zentralak beren hizkuntz politika erdalduntzaileak eraman zituzten aurrera. Eta aginte zentralaren eskuetatik zeuden erakundeetan euskarak ez zuen lekurik aurkitu: hain zuzen, erakunde publiko horietxek izan ziren hizkuntza honentzat itxienak. Ministerioetan, indar armatuetan, Gobernu Zibiletan eta Gobernu zentralaren ordezkartzetan, ofizialki ez zekiten euskararik, eta gaztelania edo frantsesa ziren hizkuntza bakarra. Bestalde, aginte-organo berorren beste erakunde gutxi-asko autonomoetan (osasun-etxeak, eskola, trenbidea, etab.) euskarari ausentzia bertsua ezartzen zitzaion”.⁴

³ LABAKA, Ana eta AZURZA, M. Eugenia (1994). *Euskararen historia soziala Lasarte-Orian*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala. Txosten argitaratu gabea.

⁴ INTXAUSTI, Joseba.(1990). *Euskara euskaldunon hizkuntza*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.

Biztanle-kopuru hori, bi mila ingurukoa, **1940.** urtera arte mantendu zen, eta, 1950-60 hamarkadatik 1975. urtera arte, industrializazioa zela eta, Lasarte-Oriako herriak hazkunde ez-kontrolatu erraldoia jasan zuen. Horrela, **1960.** urtean 3.944 bizilagun izatetik **1970.** urtean 12.449 izatera iragan zen (10 urtean, biztanle-kopurua hirukoiztu egin zen), eta **1976.** urtean 17.271 izatera (**16 urtean, biztanle-kopurua laukoiztu egin zen**).

Bigarren sektorearen hazkuntza horrek (Michelin, Bianchi, Luzuriaga...) biztanleriaren hazkuntza –inmigrazio ez-kontrolatua– ekarri zuen ondorio. Bigarren hazkunde hori, ordea, Euskal Herriaz kanpotik datorren immigrazioak elikatu zuen. Espainiako erregio gehienetatik zetozen etorkinak; batez ere, Gaztela-Leondik eta Extremaduratik. Begi-bistakoa da etorkin-uholde horrek erabat aldatu zuela Lasarte-Oriaren osaera soziologikoa, eta, beraz, soziolinguistikoa ere bai (1991n oraindik, 13 eta 24 urte arteko gazteek, nahiz eta beraien artean soilik %5 izan Euskal Herritik kanpo jaiotakoa, %60k zuten ama Euskal Herritik kanpo jaiotakoa eta %65ek aita)⁵.

Aipatutako urteetan nagusi zen erregimen frankistak ez zion euskarari mekanismo nahikorik eman (irakaskuntza...) biztanle-kopuru horiek bereganatzeko eta euskaraz bizitzen jartzeko.

Hizkera soziolinguistikoan, eta laburbiltzearen, zapalkuntza politikoen (XIX. mendearen bukaerakoak, XX. mendearen hasierakoak, gerra zibilak eta 40 urteko erregimen frankistak) **euskara minorizatu** egin zuten (funtzioak –administrazioa, irakaskuntza, lana...– kendu egin zizkieten) eta sozioekonomiak gertarazitako immigrazio ez-kontrolatuek **euskara hizkuntza minoritario** bihurtu zuten Lasarte-Orian (euskal hiztunak, kopuruz, gutxiengo izatera pasatu ziren).

Horren frogagarri, **1973.** urtean, aipatu ditugun faktore batzuk bete-betean ari zirenean, Pedro de Yrizarrek⁶ Lasarte-Oriari buruz emandako datuak: 11.164 biztanle, 2.175 euskaldun (%19,5).

Baina, urte bertsuetan –70eko hamarkadan–, eta, batez ere, ondorengoetan –80ko eta 90eko hamarkadetan–, gauza asko aldatu ziren. Sozioekonomia aldatu egin zen (2. sektorea indarra galtzen hasi zen –oso nabarmen gure herrian– eta 3. sektorea hasi zen indartzen, eta biztanleria ere estabilizatu egin zen 18.000 biztanle inguruan), erregimen politikoa aldatu zen (demokrazioa ezarri zen, euskara berreskuratzeko oinarri batzuk ezarri ziren –euskararen legea, irakaskuntza...–) eta euskararen aldeko herri-ekimenak ere hasi ziren Lasarte-Orian.

Horrek guztiak galgatu egin zuen maldan behera zihoan ordezkatzeko prozesu itzulezina, eta normalizazioa abiatzeko oinarriak ezartzeko balio izan zuen. Normalizatzeko

⁵ IRAOLA, Joxemari (1994). *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian. Hizkuntz jokaerak*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala.


⁶ YRIZAR, Pedro. *Los dialectos y variedades de la lengua vasca*.

prozesu horrek ere izan zuen ondorioa euskaldunen ehunekoetan: **1981**eko erroldan, euskaldunak %23,9 ziren (ia-euskaldunak %12,0), **1986**koan %28,1 (ia-euskaldunak %11,4), **1991**koan %32,5 (ia-euskaldunak %14,1) eta **1996**koan %35,3 (ia-euskaldunak %13,2).

A) Bilakaeraren laburpena zenbakietan

Lasarte-Orian euskarak izan duen bilakaera soziala grafiko batean laburtzea ezinezkoa bada ere, ondoren aurkezten den saiakera hau, hurbilpen gisa bada ere, lagungarria izan daiteke.

Grafikoan ikus daitekeenez, orain arte aipaturikoaren haritik, bi aldi nagusi agertzen dira: bata ordezkatzeko prozesuarena, zeinetan aipaturiko euskaldunen proportzioa %96 izatetik %19,5 izatera pasatzen baita (1879tik 1979 ingurura artekoa); eta bestea berreskuratzeko prozesua hasten denekoa (1980tik aurrera hasten da nabarmentzen).




Hizkuntzako errealitatea, ordea, kopuru horiek azaltzen dutena baino korapilatsuagoa da.

B) Ordezkatzeko prozesuaren urrats kualitatiboak

Zenbaki horiek aski dira, Lasarte-Orian euskararen egoera gaur egun ezberdina dela esateaz gain, 1879an baino okerragoa eta 1973an baino hobea dela esateko. Baina garrantzitsua da egoera batetik bestera zein urrats emanez igaro garen jakitea; batez ere, komeni zaigulako normalizazio-prozesua zein urrats emanez garatu behar den ulertzeko.

100 urte horretan gertatu den ordezkatzeko prozesuaren urratsak (Lasarte-Oriaren kasuan bezala beste herrietan ere, eta, oro har, euskarak hizkuntza gisara) argiro laburbiltzen ditu José María Sánchez Carrión soziolinguistak⁷ –“Txepetx” ezizenekoak–. Hauek dira urrats nagusiak:



I.- Funtzio-defizita. Arestian esan dugun modura, 1879. urtean ia lasartear guztiek beren eguneroko zeregin gehienak (lana, familia, merkatua...) euskaraz bizi zituzten.

Pixkana, ordea, euskarari funtzioak kendu zitzaizkion eta gaztelaniak bereganatu zituen. Bereziki, sozioekonomia, administrazioa, justizia eta irakaskuntza⁸.

⁷ SÁNCHEZ CARRIÓN Jose M^a (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia: argitalpen librea.

⁸ INTXAUSTI, Joseba.(1990). *Euskara euskaldunon hizkuntza*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

"...Eta aginte zentralaren eskuetatik zeuden erakundeetan euskarak ez zuen lekurik aurkitu: hain zuzen, erakunde horietxeak izan ziren hizkuntza honentzat itxienak..., osasun-etxeak, eskolak, trenbideak..."

"...Dakigunez, Erregimen Zaharrear, legeak erdaraz idatzi ziren Euskal Herrian. Hori ohitura finkatuzat jota, Estatu zentralak ez-ikusi egin zion euskarari, hizkuntzaren bizitza eta etorkizuna zuzenean uki zezaketen lege eta arauetan ere. Alde askotatik, hauxe izan da, luzarora, egoera soziolinguistikoa sakonagotik itzulipurdikatu duen burubide legala".

"...XX. mendean, salbuespen gutxi batzuk aparte, euskararen erabilera publikoa mugatu edo debekatzeko legeak eman ziren lehenengo hiru hamarkadetan: zentzu honetan, Estatuko araurik gogorrenetako bat 1902an aldarrikatu zen, kristau-dotrina irakastean gaztelania ezik besterik erabiltzea debekatzuz..."

Euskarari funtzioak edo jardun-esparruak nola kendu zaizkion adibideekin hornitzen duen katalogoa Joan Mari Torrealdai idatzitako "El Libro Negro del Euskera"⁹ liburua da.

2.- Alde bakarreko elebitasun soziala. Hizkuntza batek egunero beharrezkoak diren zereginak (lana, eskola, medikua...) egiteko "balio" ez duenean (edo balioa kendu zaionean), eginkizun horiek egiteko behar den hizkuntza ikasten da; izan ere, eginkizunak, egin, egiten dira, hizkuntza batean edo bestean.

Horrela, funtzio-defizit horrek eraginda, Lasarte-Oriako biztanle euskaldunak elebidundu egiten dira, eta, astiro-astiro, gaztelania da eginkizun guztietarako balio duena (batez ere, prestigio gehiena dutenentarako). Hortaz, biztanle euskaldunek gaztelania ikasi beharra daukate, eta gero eta ugariago diren biztanle erdaldunek, berriz, ez daukate euskara ikasi beharrik: alde bakarreko elebitasun soziala.

Horren frogagarri, aski da adieraztea euskaldun elebakarrik aspaldi ez dagoela ehun urte lehenago ia erabat elebakarra zen Lasarte-Orian, edo 1973an, adibidez, euskaraz zekiten biztanleak, %19,5, elebidunak zirela osoki. Gaztelaniaz zekiten biztanleak, berriz, gaur egun bezala, %100 zirela (horietatik, %19,5 bi hizkuntzak zekizkitenak eta %80,5 erdaldun elebakarrak).

3.- Gutxiagotasunezko konplexua. Ez da ulertzeko oso zaila, bere hizkuntzaren balioa gutxitua ikusten duen pertsonak bere burua ere gutxiestea: gutxiago izatearen ezintasuna.

Urrats hori Lasarte-Oriako euskaldunek ere jasan dute, eta horrek ere, sarri hizkuntzazko esperientzia baztergarriek lagunduta, berekin ekarri du, belaunaldi batean ez bada hurrengoan, eta maila batean ez bada bestean, Lasarte-Oriako herritarrek beren hizkuntzaren aldera zuten berezko atxikimendua higatzea, ahultzea.

⁹ TORREALDAI, Juan Mari (1998). *El libro negro del euskera*. Donostia: Txarttalo.

4.- Hiztun-komunitatearen desegituratzea. Lasarte-Oriako komunitatea, hizkuntzaren arabera ere antolatua egon izan da; hau da, komunitatearentzat zentralak ziren funtzioak euskaraz eta komunitatearen erdigunean zeuden pertsonak betetzen zituzten.

Baina, aipatu ditugun urratsen ondorioz (funtzioak kentzea, jatorrizko euskaldunak elebiduntzea baina ez jatorrizko erdalduak...), komunitate euskalduna ere desegituratu egin zen; hau da, komunitatearentzat zentralak ziren funtzioak gaztelaniaz betetzen hasi ziren, eta funtzio horiek betetzen zituzten pertsonak, komunitatearen erdigunean zeuden pertsonak, ez zuten euskara jakin beharrik. Horren ondorioz, euskaldun ziren herritarrek ere ez zuten hiztun-komunitate bat osatzen, erabilerari dagokionez.

5.- Lege aldetiko diskriminazioa. Funtzio-defizitaren puntuan, nahikoa azaldu dugu horri buruz. Legeak, hizkuntzari funtzioak kentzeko erabiltzeaz gain, gutxiagotutako egoera bat normalizat eta "legaltzat" emateko ere balio izan du mende honetan. Adibidetzat, Canovasen erregimenak ezarritako legeak, Primo de Riverak ezarritakoak, Moyano legea (1857-1970: irakaskuntza gaztelaniaz izatea agintzen zuena) eta, noski, Francoren erregimenak ezarritakoak.

Urrats horiek zirkulu bat osatzen dute eta elkar elikatzen, eta berekin dakarte hizkuntzen galera, euskararena zein beste edozeinena.

C) Azken 35 urteak

Baina, arestian aipatu dugunez, ordezkatzeko prozesu horrek, urteetan zehar izan duen erresistentziaz gain, baditu, azken urteetan, gainjartzen zaizkion berreskuratzeko ahaleginak ere. Ahalegin horien abiapuntua, Lasarte-Orian, 1966. urtean jarri dugu, Landaberri ikastola¹⁰ sortutako urtean.

Geroztik, demokrazia-aldiak ekarritako oinarriak daude alde batetik (Euskararen Legea, hezkuntzako irakastereduak, administrazioan euskara normalizatzeko arauak...), eta berariaz Lasarte-Oriako udalerrian egin diren hainbat ekimen bestetik (gau-eskolak, AEK euskaltegia, Euskara Taldea, ikastetxe publikoetako eredu-aldaketak, Udalaren Euskaltegia, Udaleko Euskara Batzordea, Ttakun Kultur Elkarte¹¹...).

Gizarteak izan duen bilakaeraren eta euskararen alde eta kontra egindako ahalegin horien ondorioa da XXI. mendearen hasierako "Euskararen egoera Lasarte-Orian".

Hori da hurrengo orrietan zehatza jasotzen ahalegindu garena.

¹⁰ AZPITARTE, Pako (1991). *Landaberri ikastola. 25 urteurrena 1966-1991*. Lasarte-Oria: Landaberri ikastola.

¹¹ TTAKUN KULTUR ELKARTEA (2001). *Ttakun kultur elkarte, 10 urte, 1991-2001*. Lasarte-Oria: Ttakun kultur elkarte.

3.- Lehen hizkuntza

A) Sarrera

Lehen hizkuntza (sarritan ama-hizkuntza deitu zaiona) 3 urte bete bitartean jakiten (ikasten) den hizkuntza da (definizio hori eman ohi zaio).

Hemen jasotako datuak biztanleen udaleko erroldan oinarrituak daude¹². Zehazkiago, 1986ko, 1991ko eta 1996ko erroldak betetzerakoan “*Zein izan zen zure lehen hizkuntza haurtzaroan? (3 urte arte)*” galderari emandako erantzunetatik ateratako datuak dira. Galdera horrek lau erantzun posible zituen:

- Euskara
- Gaztelania
- Biak
- Besteren bat

Oso gogoan izan behar da pertsona baten lehen hizkuntza (edo hizkuntzak) izan ohi dela pertsona baten hizkuntzazko gaitasunean gehien eragiten duen faktorea¹³.

Hau da, 20 edo 30 urteko pertsona batek duen euskara-mailan faktore askok dute eragina (adibidez, bizi den ingurunean nagusiki erabiltzen den hizkuntzak, eskolan zein hizkuntzetan aritu den, eta abar), baina etxean jasotako hizkuntza (orain arte behintzat lehen hizkuntza ia beti etxean jasotako hizkuntza izan baita) izan ohi da pertsona gehienon hizkuntzazko gaitasuna definitzen duten faktoreetan lehena, bai hurrenkeraz, bai eraginkortasunez.

Beraz, lehen hizkuntza, etxean erabiltzen den hizkuntzarekin (7. ataleko gaia) lotuta dago gehienetan. Hala ere, gogoan izan behar da lehen hizkuntza ez dutela, ezinbestean, gurasoen hizkuntzen erabilerek definitzen, nahiz eta gehienetan horrela izan.

Oso gogoan izan behar da, halaber, gero eta arruntagoa dela haurrak, 3 urtera bitartean, gurasoak ez diren beste hainbat pertsonarekin ere harremanetan izatea (zaintzaileak, haur-eskolak, telebistaren aurrean egondako orduak, aitona-amonak...), eta harreman horien guztien emaitza izango da lehen hizkuntza.

¹² EUSKO JAURLARITZA (1999). *II. Soziolinguistikazko mapa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

¹³ EUSKO JAURLARITZA. HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILORDETZA (1995). *Euskararen jarraipena*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Etxeko hizkuntzak duen garrantziagatik, hain zuzen ere, esan ohi da hizkuntzaren familia bidezko transmisioa dela (belaunaldi batek hurrengoari egiten diona, alegia) normal bizi nahi duen hiztun-komunitate batean normalizatu behar den lehena eta, beraz, hizkuntza horretan normal bizi nahi duten hiztunek praktikan jarri behar dutena.

Izan ere, hizkuntzaren familia bidezko transmisioa (edo ondorengoetaraztea) da hizkuntza jasotzeko modurik naturalena, errazena, merkeena eta eragingarriena¹⁴. Bai euskararen kasuan, bai gainerako hizkuntzen kasuan.

Euskara galerako prozesuan murgilduta egon den urteetan (eta orain ere horrela gertatzen ari da Iparraldean), euskararen familia bidezko transmisioak itoginak izan ditu, bai aita eta ama, biak, euskaldunak izanik, bai eta, areago, bietatik bakarra izan denean euskaraduna. Itoginak izateak esan nahi du gurasoak euskaldunak izanik haurrak euskaldunak ez izatea; hau da, euskarak belaunaldiz belaunaldi hiztunak sortzeko duen modurik naturalenak ez duela funtzionatzen.

Normalizatuta dagoen edozein hizkuntzak, ordea, lehenbizi, familia bidez sortzen ditu hiztunak. Hizkuntza hori dakiten guraso guztiek (hizkuntza horren ohiko lur-eremuan behintzat) erakusten diete hizkuntza seme-alabei, etxean hizkuntza hori erabiliz erakutsi ere.

Normalizazio-prozesuan dagoen hizkuntza baten kasuan, berriz, tartekoa gertatu ohi da sarritan; hau da, hizkuntzaren familia bidezko transmisioak izan ditzakeen itoginak konponduak izan ohi ditu, edo ahalegin horretan jarduten du, baina ez dira guraso guztiak hizkuntza hori belaunaldiz belaunaldi transmiti dezaketenak eta, ondorioz, transmititzen dutenak.

Azter dezagun lehen hizkuntza lasartearren kasuan.


¹⁴ ARRUTI, Iñaki (1997). Euskararen familia bidezko jarraipena. In: BAT aldizkaria. 22/23 zenbakia.

B) Datu orokorrak

1) Lehen hizkuntza 1996ko erroldan

1996	Euskara	Biak	Gaztelania	Besteren bat	Biztanleak ¹⁵
Kopurua	3.972	849	12.110	232	17.163
%	23,1	4,9	70,6	1,4	100

Lehen hizkuntza, 1996




Taulak jasotzen duenaren arabera, lasartearren %28k dute euskara lehen hizkuntza (%23,1ek euskara soilik, eta %4,9k gaztelaniarekin batera). Biztanle gehienek –%70ek, alegia– gaztelania soilik dute lehen hizkuntza.

¹⁵ Erroldako datu guztietan 5 urte baino gehiagoko biztanleria hartu dugu kontuan

2) Lehen hizkuntzaren bilakaera 1986tik 1996ra

Δ	Euskara		Biak		Gaztelania		Besteren bat		Biztanleak
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
1986	4.343	24,9	585	3,4	12.302	70,6	186	1,1	17.416
1991	4.486	25,8	569	3,3	12.046	69,4	253	1,5	17.354
1996	3.972	23,1	849	4,9	12.110	70,6	232	1,4	17.163
Aldea	-371	-1,8	+264	+1,5	-192	0,0	+46	+0,3	-253

Lehen hizkuntza, 1986-1996



Ikus daitekeenez, lehen hizkuntzak, gutxi bada ere, behera egin du lasartearren artean, bai kopuru absolutuetan (1986ko 4.928etatik [4.343+585] 1996ko 4.821etara [3.972+849]), bai ehunekoetan (28,3tik [24,9+3,4] 28,0ra [23,1+4,9]).

Jaitsiera txiki horren arrazoia, adin-tarteka aztertzen dugunean ikusiko dugun legez, 10 urteko tarte horretan hil diren pertsonen artean euskara lehen hizkuntza zutenen ehunekoa biztanleria osoak duen batez bestekoa baino handiagoa delako da batez ere. Alegia, adinekoren artean lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa gainerako guztien artean osatzen duten ehunekoa baino handiagoa dela eta, belaunaldi hori galduz joan den heinean, batez bestekoak ere behera egin duela.

Aipatu beharreko bigarren datua euskara eta gaztelania, biak, lehen hizkuntza bezala dituztenek izan duten ugaritzea da. Aldaketa horren arrazoia, hizkuntzaz mistoak diren bikoteak gehitu izana (gurasoetako bat euskalduna denean eta bestea ez) eta horiek euskara eta gaztelania, biak, familia bidez transmititu izana da, ziurrenik. Joera hori adin-tarte gazteenetan ikusten da.

C) Lehen hizkuntza adin-tarteka

Adin-tartea (1996)	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Besteren bat
5-9	24,8	13,5	61,2	0,5
10-14	20,3	12,1	67,4	0,2
15-19	18,3	8,5	72,5	0,6
20-24	17,3	8,3	74,0	0,4
25-29	21,4	5,1	72,8	0,6
30-34	24,6	3,1	71,0	1,3
35-39	24,5	3,5	69,8	2,2
40-44	22,1	2,1	73,3	2,5
45-49	20,9	2,5	74,4	2,2
50-54	17,4	2,5	78,0	2,1
55-59	24,9	2,1	70,8	2,3
60-64	31,5	2,6	64,2	1,7
65-69	38,1	1,6	58,9	1,3
70-74	41,3	1,2	57,0	0,5
75-79	28,8	1,2	68,5	1,6
80-84	41,7	0,9	54,6	2,8
>=85	30,6	2,5	66,2	0,6


Taulan eta grafikoan ikusten denez, 1996an Lasarte-Orian erroldatuta zeuden biztanleen lehen hizkuntzaren ehunekoek, adinaren arabera aztertuz gero, gorabehera dezente dituzte.

Lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekoa (batez bestekoa %23,1 da), 80-84 eta 70-74 urtekoen artean da handiena (%41), eta txikiena, berriz, 50-54 eta 20-24 urtekoen artean (%17). Azken adin-tarte horretatik behera, lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak gora egiten du etengabe (5-9 urtekoen artean %24,8 izateraino).

Hala ere, gogoan izan behar da irakurketa horiek ehunekoei dagozkiela eta ez kopuruei; izan ere, adin-tarte guztiak bost urtekoak badira ere, adibidez, 5-9 urtekoen artean lehen hizkuntza euskara soilik zutenak 184 lagun ziren, 80-84 urtekoak 218, eta, 50-54 urtekoak, berriz, 1.423.

Bestalde, lehen hizkuntza euskara eta gaztelania aldi berean dituztenei dagokienez, ehunekoak gora egiten du adinak behera egiten duen heinean, adinekoen artean 0tik hurbil egotetik 5-9 urtekoen artean %13,5 izateraino.

Lehen hizkuntza adin-tarteka (1996)




Laburbilduz, esan dezakegu adinekoen artean ateratzen dela euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekorik handiena (%42,6 80-84 urtekoen artean), eta ia guztiek euskara soilik dutela lehen hizkuntza (%41,7). Ehunekorik txikiena, berriz, 50-54 urtekoen artean dago (%19,9), eta, 20-24 urte dituztenetatik beherantz, euskara lehen hizkuntza dutenen kopuruak gora egiten du, 5-9 urtekoen artean %38,3 izatera iritsi arte. Horien kasuan, ordea, %24,8k dute euskara soilik lehen hizkuntza, eta %13,5ek, berriz, gaztelaniarekin batera dute.

Lehen hizkuntza pertsonak 3 urte dituenen betiko definitzen den aldagaiaenez gero (hizkuntzak bizitzan zehar ikas eta ahantz daitezkeen arren, lehen hizkuntza, dena delakoa, bizitza osorako da), garrantzitsua iruditu zaigu azken urte horietan, 1986 eta 1996 bitartean, lehen hizkuntza jaso dutenek (adin txikikoek) lehen hizkuntzaren ehunekoetan aldaketa nabarmenik izan ote duten jakitea.

1986an, 5-9 urte zituztenen artean, euskara lehen hizkuntza zuten %26,2k (%18,5ek euskara soilik eta %7,7k gaztelaniarekin batera); 1996an, berriz, %38,3k (%24,8k euskara

soilik eta %13,5ek gaztelaniarekin batera). Beraz, lehen hizkuntza definitzen den unean, euskarak 12 puntu egin du gora 1986 eta 1996 bitartean.



D) Lehen hizkuntza auzoka

1996	Euskara		Biak		Gaztelania		Besteren bat		Auzoak
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
Erdialdea	2.098	30,6	432	6,3	4.244	61,9	77	1,1	6.851
Oztaran-Oria	451	20,2	68	3,0	1.669	74,7	47	2,1	2.235
Sasoeta-Atsobakar	603	13,5	172	3,9	3.613	81,2	64	1,4	4.452
Zabaleta	423	62,9	64	9,5	185	27,5	1	0,1	673
Zumaburu	397	13,4	113	3,8	2.399	81,3	43	1,5	2.952
Lasarte-Oria	3.972	23,1	849	4,9	12.110	70,6	232	1,4	17.163

Taulak adierazten duen moduan, udalerriko bost auzo horietan, abiapuntuak hizkuntzazko egoerak (lehen hizkuntza) oso ezberdinak dituzte haietan bizi diren auzotarrek. Udalerrian euskara lehen hizkuntza dutenen batez bestekotik gora daude Zabaleta (%72,4) eta Erdialdea (%36,9), eta batez bestekotik behera, berriz, Oztaran-Oria (%23,2), Sasoeta-Atsobakar (%17,4) eta Zumaburu (%17,2).

Auzo guztietan, ordea, udalerriko osorako adierazi dugun joera bera antzeman daiteke. Alegia, adin gaztekoenen artean, ehunekoak auzoak duen batez bestekotik gora daude: adibidez, 5-9 urtekoenen artean, euskara lehen hizkuntza dute %77,2k Zabaletan, %53,6k Erdialdean, %23,4k Oztaran-Orian, %25ek Sasoeta-Atsobakarren eta %21ek Zumaburuan.

E) Inguruarekiko konparazioa

1996	Euskara	Biak	Gaztelania	Besteren bat	Biztanleak
	%	%	%	%	
Andoain	38,2	3,5	57,2	1,2	14.008
Hernani	41,3	6,4	51,4	0,9	17.775
Urnieta	40,8	2,5	54,5	2,3	4.840
Usurbil	61,8	3,5	33,9	0,9	5.039
Donostia	19,7	7,8	70,8	1,7	169.803
Gipuzkoa	38,6	5,5	54,3	1,6	647.977
EAE	20,3	3,6	74,4	1,7	2.015.022
Euskal Herria	—	—	—	—	—
Lasarte-Oria	23,1	4,9	70,6	1,4	17.163

Oro har, Lasarte-Oriaren inguruko udalerrietan jatorrizko euskaldunen ehunekoa (lehen hizkuntza euskara dutenak) handiagoa da; Donostian, berriz, ehunekoa nahiko antzekoa da (%27,5), nahiz eta lehen hizkuntza euskara soilik dutenak gutxiago diren eta gaztelaniarekin batera dutenak, berriz, gehiago.

Gipuzkoarekin alderatuz, berriz, Lasarte-Oria (%28) lurraldeko batez bestekotik (%44,1) nahiko urruti geratzen da. Euskadiko Autonomia Erkidegoko batez bestekoa (%23,9), berriz, txikixeagoa da.

Euskal Herri osoko daturik ez dagoenez gero, ezin dugu konparazioa egin.

4.- Hizkuntzazko gaitasuna

A) Sarrera

Lehen hizkuntza 3 urte bitartean jakiten (ikasten) den hizkuntza dela esan badugu, hizkuntzazko gaitasuna diogunean, berriz, pertsona bakoitzak dakien (ikasi duen) hizkuntza bakoitzean duen gaitasunaz dihardugu. Hizkuntzazko gaitasuna, ordea, lehen hizkuntza ez bezala, aldatuz joan daiteke (joan ohi da) pertsona bakoitzaren bizitzan zehar. Beraz, lehen hizkuntza aldagai estatikoa da, eta hizkuntzazko gaitasuna, berriz, dinamikoa.

Hemen jasotako datuak biztanleen udaleko erroldan daude oinarrituak. Zehazkiago, 1981eko, 1986ko, 1991ko eta 1996ko erroldak betetzerakoan *“Euskararen ezagupena. X batez adierazi zure ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko maila”* galderari emandako erantzunetatik ateratako datuak dira. Galdera horrek erantzun posible hauek zituen:

	Ezer ez	Nekez	Ondo
Ulertu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Hitz egin	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Irakurri	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Idatzi	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Gaztelaniazko gaitasunari buruzko galderarik ez da egin izan erroldan (ez galdetzeak gaztelania guztiok dakigulako ustea du hipotesizat).

Galdera horri erantzuteko aukera guztietatik, hiru tipologia atera ohi dira¹⁶:

- **Euskaldunak:** euskaraz gutxienez “ondo” ulertzen eta hitz egiten dutenak.
- **Elebidun hartzaileak:** euskaraz “nekez” hitz egiten, edo hitz egin gabe, “ondo” ulertzen edo irakurtzen dutenak.
- **Erdaldun elebakarrak:** euskaraz “batere ez” dutenak hitz egiten, eta ez dutenak “ondo” ez ulertzen, ez irakurtzen.

¹⁶ EUSKO JAURLARITZA (1999). *II. Soziolinguistikazko mapa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.


B) Datu orokorrak

1) Hizkuntzazko gaitasunaren datu orokorrak, 1996ko erroldakoak

1996	Euskaldunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak	Biztanleak ¹⁷
Kopurua	6.058	2.269	8.836	17.163
%	35,3	13,2	51,5	100,0

Beraz, lasartearren %35,3 dira euskaldunak, %13,2 dira elebidun hartzaileak, eta %51,5 erdaldun elebakarrak. Kopuruetan adierazita, 6.058 biztanle dira euskaldunak, 2.269 dira elebidun hartzaileak, eta 8.836 dira erdaldun elebakarrak.

Hizkuntzazko gaitasuna, 1996




¹⁷ 5 urte baino gehiagoko biztanleria hartzen da kontuan

2) Hizkuntzazko gaitasunaren bilakaera 1981etik 1996 arteko erroldetan

Δ	Euskaldunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak		Biztanleak
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
1981	3.986	23,9	2.001	12,0	10.696	64,1	16.683
1986	4.896	28,1	1.985	11,4	10.535	60,5	17.416
1991	5.646	32,5	2.455	14,1	9.253	53,3	17.354
1996	6.058	35,3	2.269	13,2	8.836	51,5	17.163
Aldea	+2.072	+11,4	+268	+1,2	-1.860	-12,6	+480

Hizkuntzazko gaitasuna, 1981-1996



Taulak eta grafikoak azaltzen dutenez, hamabost urteko tarte horretan, euskaldunek gora egin dute kopuruetan eta ehunekoetan; elebidun hartzaileek ere bai, pittin bat bada ere; eta erdaldun elebakarrek, berriz, behera egin dute nabarmen, beste bi tipologiaen baturak gora egin duen neurri berean (ehunekoetan bederen).

Beraz, Lasarte-Orian, 1996an 1981ean baino 2.072 euskaldun gehiago ziren.

3) Hizkuntzako bilakaera pertsonala

Baina pertsona bakoitzak zer bilakaera izan du tipologia horretara iritsi arte? Hau da, zein izan du lehen hizkuntza? Eta, gero, zer egin du? Euskara galdu? Euskara ikasi?

Lasarte-Oriako biztanle batek 1996an errolda betetzean euskalduna dela erantzun badu ere, nolakoa izan da pertsona horrek egin duen ibilbidea? Hau da, lehen hizkuntza euskara izan du eta gaur egun euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna izaten jarriaten du? Edo, lehen hizkuntza gaztelania izanik, eskolan euskaraz ikasi ondoren euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna lortu du?

Halaber, Lasarte-Oriako beste biztanle batek 1996an errolda betetzean erdaldun elebakarra dela erantzun badu ere, nolakoa izan da pertsona horrek egin duen ibilbidea? Hau da, lehen hizkuntza gaztelania izan du eta gaur egun ere euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gaitasunik izan gabe jarriaten du? Edo, lehen hizkuntza euskara izan du, baina euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna galdu egin du?

Eta are interesgarriagoa da, euskararen egoera deskribatzerakoan, elebidun hartzaile horiek zer diren jakitea: lehen hizkuntza euskara izanik, ongi hitz egiteko gaitasuna galdu dutenak? Edo, euskara lehen hizkuntza izan gabe, euskaraz “nekez” hitz egitera, edo hitz egin gabe, “ondo” ulertzeraz edo irakurtzeraz iritsi direnak? Lehenbizikoak euskararentzat galerak dira (umetan euskaldun ziren eta gaur egun ez), eta, bigarrenak, berriz, irabaziak (umetan ez ziren euskaldunak eta gaur egun izateko bidean dira).

Galdera horiek hizkuntzako bilakaerak argitzen dizkigu. Hizkuntzako bilakaerak lehen hizkuntza eta hizkuntzako gaitasuna gurutzatzen ditu, eta, horren ondorioz, hizkuntzako bilakaeraren tipologia hauek ateratzen dira¹⁸:

HIZKUNTZAZKO BILAKAERA PERTSONALA	Lehen hizkuntza			
	Euskara	Biak	Gaztelania	Besteren bat
Hizkuntzako gaitasuna				
Euskalduna	<i>Euskaldun zaharra</i>	<i>Jatorrizko elebiduna</i>	<i>Euskaldun berria</i>	
Elebidun hartzailea	<i>Partzialki erdaldundua</i>		<i>Partzialki euskaldundua</i>	
Erdaldun elebakarra	<i>Gutziz erdaldundua</i>		<i>Erdaldun zaharra</i>	

¹⁸ EUSKO JAURLARITZA (1999). *II. Soziolinguistikazko mapa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

- **Euskaldun zaharra:** lehen hizkuntza euskara izanik, euskaraz “ondo” ulertzen eta hitz egiten duen pertsona.
- **Jatorrizko elebiduna:** lehen hizkuntza euskara eta gaztelania izanik, euskaraz “ondo” ulertzen eta hitz egiten duen pertsona.
- **Partzialki erdaldundua:** lehen hizkuntza euskara edota euskara eta gaztelania izanik, euskaraz “nekez” hitz egiten edo, hitz egiten ez badu, “ondo” ulertzen eta irakurtzen duen pertsona.
- **Guztiz erdaldundua:** lehen hizkuntza euskara edota euskara eta gaztelania izanik, euskaraz “batere ez” hitz egiteaz gain, ez du “ondo” ulertzen, ezta irakurtzen ere.
- **Euskaldun berria:** lehen hizkuntza euskara ez beste hizkuntza bat izanik, euskaraz “ondo” ulertzen eta hitz egiten duen pertsona.
- **Partzialki euskaldundua:** lehen hizkuntza euskara ez beste hizkuntza bat izanik, euskaraz “nekez” hitz egiten edo, hitz egiten ez badu, “ondo” ulertzen eta irakurtzen duen pertsona.
- **Erdaldun zaharra:** lehen hizkuntza gaztelania edota euskara ez beste hizkuntzaren bat izanik, euskaraz “batere ez” hitz egiteaz gain, ez du “ondo” ulertzen, ezta irakurtzen ere.

Beraz, hizkuntzazko bilakaera pertsonalaren bidez, hizkuntzazko gaitasunaren hiru tipologiaen azpian pertsona bakoitzak egin duen ibilbidea (lehen hizkuntzatik egun duen hizkuntzazko gaitasunera) ikusi ahalko dugu. Pertsona bakoitzaren hizkuntzazko bilakaera aztertu ondoren, lasartear guztiena aztertu dugu, eta hauek dira zenbakiak:

Hizkuntzazko bilakaera 1996	Kopurua	%	Hizkuntzazko gaitasuna	Kopurua	%
<i>Euskaldun zaharrak</i>	3.786	22,1	EUSKALDUNAK	6.058	35,3
<i>Jatorrizko elebidunak</i>	711	4,1			
<i>Euskaldun berriak</i>	1.561	9,1			
<i>Partzialki euskaldunduak</i>	2.007	11,7	ELEBIDUN HARTZAILEAK	2.269	13,2
<i>Partzialki erdaldunduak</i>	262	1,5			
<i>Guztiz erdaldunduak</i>	62	0,4	ERDALDUN ELEBAKARRAK	8.836	51,5
<i>Erdaldun zaharrak</i>	8.774	51,1			
GUZTIRA	17.163	100		17.163	100

Taula horrek adierazten diguna zera da: Lasarte-Orian, 6.058 euskaldun bizi badira ere, guztiek ez dute ibilbide bera egin; 3.786k, euskara lehen hizkuntza izanik, euskaldun izaten jarraitzen dute; 711k gauza bera, baina lehen hizkuntza euskara eta gaztelania, biak izanik; eta 1.561, berriz, lehen hizkuntza euskara ez izan arren, euskaldun izatera iritsi dira (euskaldun berriak).

Horretaz gain, badira 2.007 bizilagun, euskara lehen hizkuntza ez izan arren, euskaraz “nekez” hitz egitera iritsi direnak edo, hitz egitera heldu ez badira ere, “ondo” ulertzera eta irakurtzera iritsi direnak. Beraz, *elebidun hartzaile* gehienak euskarazko gaitasunik ez izatetik izatera pasatutakoak dira.

Bestalde, ordea, badira 262 bizilagun, euskara lehen hizkuntza izanik, euskaraz “ondo” hitz egiteko gaitasuna partzialki galdu dutenak, eta beste 62 erabat galdu dutenak.

Azkenik, 8.774 erdaldun zahar dira Lasarte-Orian: lehen hizkuntza euskara izan gabe, euskaraz hitz egiteko batere gaitasunik lortu ez dutenak. Beraz, ia erdaldun elebakar guztiak erdaldun zaharrak dira, oso gutxi izan baitira (62) lehen hizkuntza euskara izanik erabat galdu dutenak.

Orain arte azaldutako hizkuntzazko bilakaera pertsonalaren datuak 1996ko erroldakoak badira ere, nola aldatu da 1986tik 1996ra Lasarte-Oriako biztanleen artean hizkuntzazko bilakaera pertsonal hori?


HIZKUNTZAZKO BILAKAERA PERTSONALA (1986-1996)	Euskararentzako galera-irabaziak							
	Zer		1986	%	1996	%	Aldea	%
<i>Euskaldun zaharrak</i>	Jatorriz baduena	=	4.055	23,2	3.786	22,1	-269	-1,2
<i>Jatorrizko elebidunak</i>	Jatorriz baduena	=	402	2,3	711	4,1	+309	+1,8
<i>Euskaldun berriak</i>	Irabazia	+	439	2,5	1.561	9,1	+1.122	+6,6
<i>Partzialki euskaldunduak</i>	Irabazia	+	1.678	9,6	2.007	11,7	+329	+2,1
<i>Partzialki erdaldunduak</i>	Galera	-	307	1,8	262	1,5	-45	-0,3
<i>Gutziz erdaldunduak</i>	Galera	-	164	0,9	62	0,4	-102	-0,5
<i>Erdaldun zaharrak</i>	Jatorriz ez duena	=	10.371	59,5	8.774	51,1	-1.597	-8,4

1986an, euskarak irabazi zituen hiztunak 2.117 ziren (439 + 1.678), eta galdu zituenak 471 (307 + 164). 1996an, berriz, euskarak 3.568 hiztun zituen irabaziak (1.561 + 2.007), eta 324 galduak (262 + 62).

Beraz, euskaldunak gehitzen ari badira ere (1986an 4.896 [%28] eta 1996an 6.058 [%35,3]), gehikuntza hori *jatorrizko elebidunak* eta, batez ere, *euskaldun berriak* gehitu direlako

izan da, *euskaldun zaharrak* gutxitu egin baitira. Horrek adierazten digu 1986tik 1996ra euskaldunen kopuruak eta ehunekoak gora egin dutela eta barruko osaera ere asko aldatu dela. Grafikoak azaltzen du 1986an, Lasarte-Oriako euskaldunen artean, %9 bakarrik zirela *euskaldun berriak*, eta, 10 urte geroago, berriz, ia %26.

Euskaldunen osaeraren bilakaera, 1986-1996



Elebidun hartzaileen kasuan, berriz, 1986tik 1996ra izan duten gehikuntza (1.985etik 2.269ra), *partzialki euskaldundu* direnei (+329) zor zaie batez ere, *partzialki erdaldundu* direnak gutxitu izan baitira (-45).

Eta *erdaldun elebkarrei* dagokienez, berriz, 1.699 gutxiago dira. Jaitsiera hori, ordea, *erdaldun zaharren* gutxitzeari dagokio batez ere (1.597). Bestalde, *guztiz erdaldundu* direnak ere 1986an baino gutxiago dira eta oso kopuru txikia osatzen dute: 102.

Laburbiltzeko, 1986 eta 1996 bitartean euskarak Lasarte-Orian izan dituen euskal hiztunen galera-irabaziak honako taulan jaso ditugu:

Galera-irabaziak Δ (1986-1996)	Euskararentzako galera-irabaziak		
	Kopuruak	%	Nortzuk
Erabateko irabaziak	+1.122	+6,6	<i>Euskaldunberriak</i>
Irabazi partzialak	+329	+2,1	<i>Partzialki euskaldunduak</i>
Irabazien gehikuntza	+ 1.451	+8,7	
Erabateko galerak	-102	-0,5	<i>Guztiz erdaldunduak</i>
Galera partzialak	-45	-0,3	<i>Partzialki erdaldunduak</i>
Galeren gehikuntza	-147	-0,8	

Esan dugun legez, kontuan izanik alde batetik *euskaldun zaharrak* eta *jatorrizko elebidunak* euskarak hasieratik dituen hiztunak direla (lehen hizkuntza bazuten heinean) eta, beraz, ez direla ez galera ez irabazi euskararentzat, eta, bestetik, *erdaldun zaharrak* ere ez direla izan euskararentzat ez galera ez irabazi, *euskaldun berriek* eta *partzialki euskaldunduak* dira euskarak izan dituen irabaziak.

Irabazi horiek modu honetara gehitu dira hamar urteko tarte horretan: 1.122 hiztun irabazi ditu euskarak erabat ("ondo" hitz egitera iritsi diren heinean) eta 329 partzialki ("ondo" hitz egitera iritsi ez diren heinean).

Galerei dagokienez, berriz, 147 hiztun gutxiago galdu ditu euskarak hamar urte horretan.


Ondorioz, lehen hizkuntza euskara izanik gaitasun hori mantentzen duten hiztunez gain, 1986 eta 1996 bitartean euskarak irabazi dituen hiztunak gehitu egin dira, eta galerak, berriz, gutxitu.

C) Adin-taldeka

1) Hizkuntzazko gaitasuna adin-taldeka 1996ko erroldan

(1996) Adina	Euskaldunak: %35,3	Elebidun hartzaileak: %13,2	Erdaldun elebakarrak: %51,5
5-9	71,4	20,4	8,2
10-14	73,7	17,6	8,7
15-19	44,9	25,9	29,2
20-24	33,2	25,4	41,4
25-29	31,8	17,6	50,5
30-34	30,5	15,8	53,7
35-39	29,9	11,5	58,5
40-44	23,7	8,4	67,9
45-49	23,3	6,9	69,8
50-54	19,1	4,3	76,6
55-59	27,0	4,0	69,1
60-64	34,4	4,7	60,8
65-69	40,6	4,8	54,7
70-74	44,5	2,7	52,8
75-79	32,3	3,1	64,6
80-84	40,8	4,6	54,6
>=85	31,8	1,9	66,2

Hizkuntzazko gaitasuna, 1996



Taulan eta grafikoan argi ikusten dira hizkuntzazko gaitasunak lasartearren adinaren arabera dituen ezberdintasunak. Izan ere, 65 urtetik gorakoen artean, *euskaldunen* ehunekoa %40 inguruan dagoen bitartean, adinak behera egiten duenean, ehunekoa 19,1 eraino jaisten da 50-54 urtekoen artean (60. eta 70. hamarkadetan Lasarte-Oriara etorri ziren etorkinen adierazle). Hortik behera, berriz, *elebidun hartzaileen* ehunekoak gora egiten du nabarmen. *Euskaldunen* ehunekoak ere gora egiten du, emeki-emeki, 20-24 urte bitartekoekin adinmultzora arte, eta jauzi handiak ematen ditu gazteagoen artean.

5-9 urtekoen artean, %71,4 ziren *euskaldunak*, %20,4 *elebidun hartzaileak* eta %8,2 *erdaldun elebakarrak* 1996an.

Euskaraz batere ez dakitenen ehunekorik handieneko tartea 50-54 urtekoena da (%76,6), eta ehunekorik txikienekoa, berriz, 5-9 urtekoena (%8,2).


Hala ere, euskararen berreskurapenaren indikagarri argienetakoa izan daitekeen hori –adinak behera egiten duen heinean *erdaldun elebakarrak* desagertuz doazela, alegia–garrantzitsua da, ehunekoetan ez ezik, kopuru absolutuetan ere ikustea. Izan ere, *euskaldunen* ehunekoak nabarmen gora egin badu ere, jaiotza-tasan izan den beherakada izugarriaren ondorioz, adin-tarte bakoitzeko biztanleek herri osoaren alderakotzat duten pisu erlatiboa oso ezberdina da (ikus taula eta grafikoa).

(1996) Adina	Biztanleak	Euskaldunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
5-9	742	530	151	61
10-14	1.001	738	176	87
15-19	1.598	717	414	467
20-24	1.886	627	479	780
25-29	1.638	521	289	828
30-34	1.357	414	214	729
35-39	1.189	356	137	696
40-44	1.217	289	102	826
45-49	1.403	327	97	979
50-54	1.423	272	61	1.090
55-59	1.239	334	49	856
60-64	822	283	39	500
65-69	609	247	29	333
70-74	407	181	11	215
75-79	257	83	8	166
80-84	218	89	10	119
>=85	157	50	3	104
Guztira	17.163	6.058	2.269	8.836

Beste modu batean esanda, adibidez, 5-9 urte artean *euskaldunen* ehunekoa adin-tarte guztien artean handiena izan arren (%71,4), adin-tarte horretan dauden herritarrak (742) beste adin-tarte gehienetan daudenak baino gutxiago direnez gero, kopuru horren pisu erlatiboa beste adin-tarte gehienena baino txikiagoa da.

Adibidez 20-24 urte artekoen artean, 1.886 herritar daude, eta, *euskaldunak* %33,2 izan arren, 624 dira *euskaldunak*, 5-9 urtekoak baino gehiago (530), horien artean %71,4 *euskaldunak* izan arren. Ikus adin-piramidea eta hizkuntzazko gaitasuna biltzen dituen grafikoa.

Adin-piramidea hizkuntzako gaitasunaren arabera, 1996




Grafiko hori oso kontuan izan behar da; izan ere, beti esan ohi da adin-tarte bakoitzaren erreferentzia (hizkuntzako erreferentzia ere) adin-tarte zaharragoa izan ohi dela (haurrentzat gaztetxoak, gaztetxoentzat helduxeagoak), eta, kasu horretan, adin-tarte gehientsuenen hizkuntzako erreferentzia adin-tarte hori bera baino erdaldunagoa da, eta izango da, Lasarte-Orian, urte askoan.

Arrazoitze horren arabera, helduen adin-tarteak, gizartearen zentroan dagoenak, urte asko pasatuko ditu hizkuntzako gaitasunean kopuruzko aldaketa esanguratsuak izan arte.

2) Hizkuntzazko gaitasunaren eboluzioa adin-taldeka (1981-1996)

Hurrengo grafikoak azaltzen du 15 urteko tarte horretan Lasarte-Oria osatzen dugun biztanleok, adinaren arabera aztertuta, hizkuntzazko gaitasunean izan dugun aldaketa. Udalerriko *euskaldunen* ehunekoa %23,9tik %35,3ra iragan bada ere, ez du proportzio berean egin adin-tarte guztietan. Aldaketarik handienak adin-tarte gazteenetan gertatu dira; izan ere, 1981ean 5-9 urtekoen artean %19,2 ziren *euskaldunak* eta, 1996an, berriz, %71,4.

Euskaldunak adinka, 1981-1996



Grafikoak orobat azaltzen du *euskaldunen* ehunekoak txikituz joatetik handitzen hastera aldatzen den inflexio-puntua 35-39 urtekoen artean zegoela 1981ean, 40-44 urtekoen artean 1986an, 45-49 urtekoen artean 1991n, eta 50-54 urtekoen artean 1996an.

3) Hizkuntzazko bilakaera pertsonala adin-taldeka

Aurreko ataletan esan dugun legez, ordea, *euskaldunen* ehunekoak izan duen gorakada adin-tarterik gazteenetan gertatu da alde batetik, eta lehen hizkuntza euskara izan gabe eskola edo euskaltegi bidez euskaldundutako pertsonen dagokie bestetik.

Prozesu horrek ekarritako ondorioa da euskaldunak gero eta gehiago izatea, alde batetik, eta euskaldunen barruko osaeran euskaldun zaharren ehunekoak gero eta txikiagoa izatea, bestetik.

Ikus adin-tarte bakoitzean hizkuntzazko bilakaera pertsonalak dituen ezberdintasunak:


1996	Euskaldunak: %35,3			Elebidun hartzaileak: %13,2		Erdaldun elebakarrak: %51,5	
	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Partzialki euskaldunduak	Partzialki erdaldunduak	Guztiz erdaldunduak	Erdaldun zaharrak
5-9	24,7	12,7	34,1	19,4	0,9	0,0	8,2
10-14	20,1	11,7	42,0	17,1	0,5	0,1	8,6
15-19	18,3	7,9	18,6	25,5	0,4	0,2	29,0
20-24	16,8	7,3	9,2	24,1	1,3	0,3	41,1
25-29	20,8	3,9	7,1	16,3	1,3	0,5	50,1
30-34	22,3	2,3	5,9	13,1	2,7	0,4	53,3
35-39	22,2	2,4	5,3	8,8	2,7	0,7	57,9
40-44	20,0	0,8	3,0	5,8	2,6	0,8	67,1
45-49	19,8	1,8	1,7	5,5	1,4	0,4	69,4
50-54	16,3	1,5	1,3	2,7	1,5	0,6	76,0
55-59	23,6	1,5	1,9	2,3	1,6	0,2	68,8
60-64	30,2	2,1	2,2	2,9	1,8	0,0	60,8
65-69	36,8	1,5	2,3	3,4	1,3	0,2	54,5
70-74	40,0	1,0	3,4	1,5	1,2	0,2	52,6
75-79	28,4	0,8	3,1	2,7	0,4	0,4	64,2
80-84	39,4	0,9	0,5	2,3	2,3	0,0	54,6
>=85	28,7	1,9	1,3	0,6	1,3	1,3	65
Guztira	22,1	4,1	9,1	11,7	1,5	0,4	51,1

Taula horrek azaltzen digun daturik adierazgarriena da 20-24 urtez azpikoen artean gora egiten duela *euskaldunen* ehunekoak, baina batez ere *jatorrizko elebidunen* ehunekoak, eta, modurik nabarmenean, *euskaldun berrienak*. Azken horiek dira euskararen erabateko irabazien multzoa osatzen dutenak (lehen hizkuntza euskara izan gabe euskaldun izatera heldu direnak).

Horregatik, lehenago biztanleria osoarentzat esan dugun gisara, euskaldunen barruko osaeran ezberdintasun handiak daude adin-tarteka ere aztertuz gero.

Grafikoak erakusten digunez, adineko euskaldunen artean ia guztiak *euskaldun zaharrak* diren bitartean, gaztetxo euskaldunen artean, *euskaldun zaharrak* eta *jatorrizko elebidunak* batuta, gaztetxo enrdia inguru soilik dira. Beste erdia *euskaldunberriak* dira.

Euskaldunen hizkuntzako bilakaera pertsonala adinka, 1996




D) Auzoka

Lehen hizkuntzarekin gertatzen den bezala, euskaldunen ehunekorik handiena (%73,1) Zabaleta auzoan dago; ondoren, erdialdean (%44,5); eta, herriko batez bestekoaren azpitik, Oztaran-Orian (%32,6), Sasoeta-Atsobakarren (%27,3) eta Zumaburun (%19,4).

1996	Euskaldunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak		Auzoak
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
Erdialdea	3.052	44,5	904	13,2	2.895	42,3	6.851
Oztaran-Oria	728	32,6	303	13,6	1.204	53,9	2.235
Sasoeta-Atsobakar	1.214	27,3	580	13,0	2.658	59,7	4.452
Zabaleta	492	73,1	50	7,4	131	19,5	673
Zumaburu	572	19,4	432	14,6	1.948	66,0	2.952
Lasarte-Oria	6.058	35,3	2.269	13,2	8.836	51,5	17.163

Elebidun hartzaileen kasuan, berriz, auzo guztietan antzeko ehunekoa ematen du (%13-14), Zabaletan izan ezik (%7).

Ondoko mapak jasotzen du euskaldunak udalerrian nola dauden banatuta.



E) Inguruarekiko konparazioa

1996	Euskaldunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak	Biztanleak
	%	%	%	
Andoain	49,7	13,0	37,3	14.008
Donostia	32,6	20,7	46,8	169.803
Hernani	52,6	12,2	35,2	17.775
Urnietia	52,0	9,7	38,3	4.840
Usurbil	70,6	7,4	22,0	5.039
Gipuzkoa	49,8	13,8	36,4	647.977
EAE	30,9	16,0	53,1	2.015.022
Euskal Herria	—	—	—	—
Lasarte-Oria	35,3	13,2	51,5	17.163

Taulak adierazten digunez, Lasarte-Oriaren ingurua Lasarte-Oria baino euskaldunagoa da, bai inguruan dituen udalerriei erreparatuz gero, bai Gipuzkoako lurralde osoari begiratzuz gero ere. Hala ere, Lasarte-Oriako eta Donostiako hizkuntzazko egoerak nahiko antzekoak dira, biztanleen hizkuntzazko gaitasunari so eginez gero; euskaldunen ehunekoa handixeagoa bada ere Lasarte-Orian, erdaldun elebakarrena, ordea, txikiagoa da Donostian.

Bestalde, Lasarte-Oriako euskaldunen ehunekoa Euskadiko Autonomia Erkidegoko baina zerbait handiagoa da.

Euskal Herri osoko daturik ez dagoenez gero, ezin dugu konparaziorik egin.

5.- Irakaskuntza

Azken urteetan lasartearren euskarazko gaitasunak izan duen gehikuntzaren arrazoi nagusia, bistakoa denez, irakaskuntza da. Irakaskuntzaren atal honetan, Lasarte-Oriako ikastetxeetan hezurramitu den irakaskuntza ez unibertsitarioa aztertuko dugu alde batetik, eta euskaltegien bidez gauzatu den helduen euskalduntze-alfabetatzea bestetik.

Xehetasun gehiegitan sartu gabe, esan dezakegu XX. mendeko bigarren erdialdean euskarazko irakaskuntzak izan duen biziberritzea Landaberri Ikastolarekin hasi zela, 1965. urtearen inguruan. Hain zuzen ere, Landaberri ikastola helburu horrekin sortu zuten: euskarazko irakaskuntza eskaintzea Lasarte-Orian.

Ondoren, Lasarte-Oriako ikastetxe publikoetan, "A", "B" eta "D" hizkuntzazko ikastereduak aplikatu ziren, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan euskarari bidea emateko onetsitako hainbat legeren ondorioz ezarriak. Ikastereduak letra horien bidez ondoren zehazten den moduan definitzen badira ere, aplikazioak aldaketak izan ditu, bai edukietan, bai denboran zehar, bai eta ikastetxe bakoitzaren arabera ere.

- **A ereduak:** irakaskuntza gaztelaniaz da, eta euskara asignatura gisa irakasten da.
- **B ereduak:** asignaturak bi hizkuntzatan ematen dira, gaztelaniaz batzuk eta euskaraz besteak.
- **D ereduak:** irakaskuntza euskaraz da, eta gaztelania asignatura gisa irakasten da.

Ikasteredu horiek Lasarte-Orian izan duten bilakaera jasoko dugu orrialde hauetan.

A) Irakaskuntza ez unibertsitarioa

1) Ikastetxeen, eskola-ereduen eta ikas-zikloen gaineko zenbait azalpen

Ikastetxeetako ikasleen eta ikastereduen datu fidagarriak¹⁹ 1980-1981 ikasturtetik aurrera ditugunez gero, ikasturte horretatik mende-bukaera bitarteko 20 urteko bilakaeraz jardungo dugu batez ere. Urte horietan zehar, ordea, aldaketa asko izan da irakaskuntzaren antolakuntzan: irakaskuntzako zikloak aldatu egin dira, derrigorrezko hezkuntzaren definizioa ere bai, hainbat ikastetxe batu egin dira...

¹⁹ Atal honetan jasotako datuen iturria Lasarte-Oriako Udaleko Euskarako Zerbitzua da. Euskarako Zerbitzuak datu horiek bildu ditu ikasturte hasiera bakoitzean ikastetxe bakoitzeko zuzedariari ikasturte horretako datuak eskatuz.

Horregatik guztiagatik, datuekin hasi aurretik, ezinbestekoa da aldaketa horiei buruzko ohar garrantzitsuenak bederen aditzera ematea.

Haurrak eskolatutako adinari dagokionez, derrigorrezko hezkuntza urte horietan guztietan 6 urtekin hasi izan bada ere, Lasarte-Orian beti izan dira Haur Hezkuntzako ikastetxeak, eta gurasoek, oro har, eskolek haurrak eskolatzeko eskaini duten adinik txikienean eskolatu izan dituzte haurrak. Adin hori, ordea, aldatuz joan da hogeitau urte horietan zehar:

- 1980-1981 ikasturtetik 1992-1993 ikastertera, haurrak, oro har, 3 urterekin eskolatu izan dira.
- 1993-1994 ikasturtetik aurrera, haurrak, oro har, 2 urterekin eskolatu dira.

Urte-tarte horietako datuetan, haurrak eskolatu diren adinetik gorako haurrak daude zenbatuta.

Irakaskuntzako zikloei dagokienez, 1996-97 ikasturtean ezarritako eskola-mapak eraman zituen errealitatera irakaskuntzaren erreforma arautzen duen LOGSE legeak ezarritako irakaskuntzako ziklo berriak.

- 1980-1981etik 1995-1996ra, Lasarte-Oriako ikastetxeetan Haur Hezkuntza (≤ 5 urte), Oinarrizko Heziketa Orokorra ($\approx 6-13$ urte), eta Bigarren Hezkuntza ($\approx 14-18$ urte) egon dira.
- 1996-1997 ikasturtetik aurrera, berriz, HH (Haur Hezkuntza $\approx 2-5$ urte), LH (Lehen Hezkuntza $\approx 6-11$ urte), DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza $\approx 12-16$ urte) eta DBHO (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondorengoa $\approx 17-18$ urte) daude.

Ikastetxeei dagokienez, berriz, honela laburbil daiteke 20 urte horietan Lasarte-Orian izan ditugun ikastetxeak.

- **Garaikoetxea ikastetxe publikoa:** 1980-1981 ikasturtetik 1995-1996 ikastertera aritu da izen horrekin. 1996-1997 ikasturtean, Landaberri ikastolarekin bat egin zuen, ikastola sare publikoan sartzearen eta eskola-mapa berria onestearen ondorioz. Haur Hezkuntzako eta Oinarrizko Heziketa Orokorreko ikastetxea izan da.
- **Landaberri ikastola:** 1980-1981 ikasturtetik 1995-1996 ikastertera aritu da izen horrekin. 1996-1997 ikasturtean, Garaikoetxea ikastetxe publikoarekin bat egin zuen, ikastola sare publikoan sartzearen eta eskola-mapa berria onestearen ondorioz. Haur Hezkuntzako eta Oinarrizko Heziketa Orokorreko ikastetxea izan da eskola-mapa berria onetsi arte. Ondoren, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bat osatu du alde batetik, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bat, bestetik.
- **Oztaran ikastetxe publikoa:** 1980-1981 ikasturtetik 1999-2000 ikastertera aritu da izen horrekin. Hori izan du azken ikasturtea.
- **Sasoeta ikastetxe publikoa:** 1980-1981 ikasturtetik 1995-1996 ikastertera aritu da izen horrekin. 1996-1997 ikasturtean, Zumaburu ikastetxe publikoarekin bat egin

zuen, eskola-mapa berria onestearen ondorioz. Haur Hezkuntzako eta Oinarrizko Heziketa Orokorreko ikastetxea da.

- **Zumaburu ikastetxe publikoa:** 1980-1981 ikasturtetik 1995-1996 ikastertera aritu da izen horrekin. 1996-1997 ikasturtean, Sasoeta ikastetxe publikoarekin bat egin zuen, eskola-mapa berria onestearen ondorioz. Haur Hezkuntzako eta Oinarrizko Heziketa Orokorreko ikastetxea da.
- **Lasarte-Oriako institutua:** 1981-1982 ikasturtetik aurrera aritu da izen horrekin. Bigarren Hezkuntzako ikastetxea da.
- **Usurbilgo Lanbide Eskola:** 1980-1981 ikasturtetik 1997-1998 ikastertera aritu da Bigarren Hezkuntzako ikastetxe gisara. Usurbilgo lurretan kokatua egon arren, Lasarte-Oriatik joan diren ikasleak ere bildu ditugu estatistika hauetan.

2) 2000/2001 ikasturteko ikastereduak

Adina	Errol- datuak (1996)	Lasarte-Orian matrikulatuak		EREDUAK					
				A		B		D	
				Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak	%
2 urte	157	120	76,4	—	0,0	—	0,0	120	100,0
3 urte	134	109	81,3	—	0,0	30	27,5	79	72,5
4 urte	128	97	75,8	—	0,0	11	11,3	86	88,7
5 urte	130	105	80,8	—	0,0	14	13,3	91	86,7
HH	549	431	78,5	—	0,0	55	12,8	376	87,2
6 urte	116	73	62,9	—	0,0	17	23,3	56	76,7
7 urte	121	70	57,9	—	0,0	23	32,9	47	67,1
8 urte	145	82	56,6	—	0,0	27	32,9	55	67,1
9 urte	149	109	73,2	—	0,0	58	53,2	51	46,8
10 urte	132	64	48,5	—	0,0	36	56,3	28	43,8
11 urte	138	80	58,0	—	0,0	43	53,8	37	46,3
LH	801	478	59,7	—	0,0	204	42,7	274	57,3
12 urte	140	87	62,1	—	0,0	54	62,1	33	37,9
13 urte	146	107	73,3	—	0,0	70	65,4	36	33,6
14 urte	181	105	58,0	6	5,7	66	62,9	33	31,4
15 urte	165	85	51,5	6	7,1	43	50,6	36	42,4
DBH	632	384	60,8	12	3,1	233	60,7	138	35,9
16 urte	159	100	62,9	26	26,0	—	0,0	74	74,0
17 urte	194	101	52,1	28	27,7	—	0,0	73	72,3
DBHO	353	201	56,9	54	26,9	0	0,0	147	73,1
Guztira	2.335	1.494	64,0	66	4,4	492	32,9	935	62,6

Taula horretatik, bi datu nagusi ondorioztatzen dira. Lehenbizikoa, 2 eta 18 urte bitarteko Lasarte-Oriako haur eta gazteen %36k ez dutela Lasarte-Oriako ikastetxeetan ikasten (gehienak, ziurrenik, Donostiako ikastetxeetan ariko dira ikasten, eta 16-18 urteko hainbatek ikasteari utzi egingo zion).

Bigarrena, berriz, Lasarte-Orian ikasten diharduten ikasleetatik %4 bakarrik direla euskaraz ikasten ari ez direnak.

Derrigorrezko Hezkuntzan (≤ 16 urte) A ereduan ikasten ari direnak lehenbizikoz eskolatu zirenean eredu horretan eskolatutakoak dira. Gaur egun, ordea, Haur Hezkuntzan eskolatzen diren haur guztiak B eta D ereduetan eskolatzen dira; nagusiki, azken horretan. Derrigorrezko Hezkuntzan, ikasmailetan behera egin ahala, euskarazko irakaskuntzaren hautua gero eta sendoagoa da.

Datu horietan sartu gabe daude azken ikasturteetan Lasarte-Oriako Institutuan 18 urtez gorakoentzat eskaintzen ari diren Goi Mailako Heziketa Zikloetako datuak (ziklo horiek gaztelaniaz irakasten dira).

3) Ikastereduen bilakaera, 1980/1981 ikasturtetik 2000/2001 ikasturtera

a) Lasarte-Oriako ikasleen datu orokorrak


Ikasturtea	Erroldatuak	Lasarte-Orian matrikulatuak		EREDUAK					
				A		B		D	
		Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak	%
1980-81	5.591	3.572	63,9	2.794	78,2	88	2,5	690	19,3
1985-86	5.458	3.943	72,2	2.707	68,7	554	14,1	690	17,5
1990-91	4.223	2.880	68,2	1.421	49,3	863	30,0	596	20,7
1995-96	3.070	2.144	69,8	549	25,6	926	43,2	669	31,2
2000-01	2.335	1.494	64,0	66	4,4	492	32,9	935	62,6
Aldea	-3.256	-2.078	+0,1	-2.728	-73,8	+404	+30,4	+245	+43,4

Taula horretan ikusten dugunez, alde batetik, jaiotza-tasak txikitze izugarria izan du 20 urte horietan. Adin-tarte berean, 5.591 pertsona errodatuta egotetik 2.335 egotera igaro da. Jaitziera hori %58koa da.


Beste alde batetik, 1980-1981 ikasturtean Lasarte-Oriako ikastetxeetan matrikulatzen ziren herritarren ehuneko eta 2000-2001 ikasturtean matrikulatu direnen ehuneko antzekoak dira (hirutik bi eskas), nahiz tarteko urte batzuetan ehuneko handiagoko ikasturteak izan diren.

Eta, azkenik, ikastereduek izan duten bilakaera ere oso modu gardenean ikusten da. 1980-1981 ikasturtean 18 urte arteko ia haur eta gaztetxo guztiek gaztelaniaz ikasten zuten (%78); 2000-2001 ikasturtean, berriz, %4,4k soilik ikasten dute gaztelaniaz. Gainerako %95 euskaraz ikasten ari dira osoki edo ia osoki. Bilakaera hori honako grafiko honek irudikatzen du modu argiagoan.

Ikastereduen bilakaera, 1980-2000



Hala ere, aldaketa horiek argiago ikusten dira ikasturte horietan ikastereduek haurren adinaren (edo ikasmilaren) arabera izan duten banaketa modu diakroniko batean kontsideratuz gero. Hori azaldu nahi dute honako grafiko hauek.



Grafiko horien axaleko irakurketak bistaratzen duenez, 80ko hamarkada arte, euskarazko irakaskuntza minoritarioa zen (%20tik beherakoa), D erduaren bidez bakarrik gauzatu zen (1966an 3 eta 4 urteko 42 ikaslerekin eman zitzaion hasiera), eta, grafikoan azaltzen ez bada ere, Landaberri ikastolan eta Lehen Hezkuntzan bakarrik hezuramaitu zen (oraindik abiatu gabe zegoen Institutua bera).

80ko hamarkadan, ordea, B ereduaren olatua A ereduaren ordezkatzen hasi zen, eta, 1990-1991 ikasturterako, Lehen Hezkuntzako eredurik aukeratuena bilakatu zen.

90eko hamarkadan, berriz, bi fenomeno ikusten dira. Alde batetik, B ereduaren Lehen Hezkuntzatik bigarrenera igaro zen (olatu-itxurarekin jarraituz), eta ziklo horretako eredurik aukeratuena izatera iritsi. Eta, bestetik, D ereduaren gorakada nabarmena hasi zen, bai lehenbiziko aldiz eskolaratu ziren haur gazteenen kasuan, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ordorengo etaparen (gogoan izan behar da 15 urte arte hiru ereduak eskaintzen direla eta hortik aurrera, berriz, A eta D bakarrik).

Grafiko horien bidez azaltzen da azken hogeitun urteetan euskaraz Lasarte-Oria izan duen hizkuntzako aldaketa nagusia, ia ikasle guztiak gaztelaniaz ikasten aritzetik, ia guztiak euskaraz ikasten aritzera igaro baitira.

Aldaketa hori izan da erroldako datuetan ikusi dugun hizkuntzako gaitasunaren aldaketan gehien eragin duena. Aldaketa hori biztanleria guztia kontuan hartuta gertatu da alde batetik (1981ean %23,9 ziren euskaldunak, eta 1996an, berriz, %35,3), baina adin-tarterik gazteenetan nabarmendu da gehien; izan ere, 1981ean, 5-9 urtekoen %19 ziren euskaldunak (D ereduak zuen ehunekoaren antzekoa), eta 1996an, berriz, %71 (Lasarte-Oriako ikastetxeetan B eta D ereduaren baturak zuen ehunekoa baino zerbait txikiagoa).

Ehunekoek gain kopuruei erreparatu gero, ordea, gogoan izan behar dugu jaiotza-tasa handieneko urteetan (70eko hamarkada eta 80ekoaren hasiera) irakaskuntzako sistema ez zegoela euskaldunduta (eta, beraz, euskal hiztun asko osatzeko aukera galdu zela), eta, irakaskuntzako sistema hiztun euskaldunak sortzeko prestatuagoa egon den urteetan (80ko hamarkadaren amaiera eta 90eko hamarkada), berriz, jaiotza-tasa askoz txikiagoa izan dela (eta, beraz, sortutako euskal hiztunak, kopuru absolutuetan, askoz gutxiago izan direla).

Irakaskuntzak Lasarte-Oria berreuskalduntzen hasteko izan duen garrantzia dela eta, 1980-81 ikasturteetik 2000-2001 ikasturte bitarteko datu gehiago bildu ditugu eranskinean.

B) Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea

Lasarte-Orian gaur egun bi euskaltegi daude: Udalaren euskaltegia eta AEK Muntteri euskaltegia. Bi euskaltegietan eskaintzen dira helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko zehaztuta duden ikasmaila guztiak, I. urratsetik EGA titulua ateratzeko ikastaroraino.

1) 1987/1988 ikasturtetik 1999/2000 ikasturtera izandako bilakaera

Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea modu antolatu batean (gau-eskola izenarekin) hirurogeita hamarreko hamarkadan hasi bazen ere, guk informazioa HABEtik jaso dugu, eta 1986-1987 ikasturtetik aurrerako informazioa bakarrik daukagu.

Gogoan izan behar da, gau-eskolaren ondoren, AEK erakundearen euskaltegia osatu zela jarraian, Michelin enpresak ere euskarako eskolak eman zituela bere garaian, eta, 1987-88 ikasturtetik aurrera, Udalaren euskaltegia ere abian jarri zela. Helduen Heziketa Iraunkorrean ere euskara ikasteko kurtsoak eskaintzen dira egun.

Atal honetan, ordea, herriko bi euskaltegietan ikasturtez ikasturte matrikulatu diren ikasleen kopuruak bakarrik bildu ditugu.

Ikasturtea	Lasarte-Oriako euskaltegietako ikasle lasartearrak	Beste euskaltegietan matrikulatutako ikasle lasartearrak	Ikasle lasartearrak guztira
1986-1987	252	102	354
1987-1988	299	103	402
1988-1989	367	76	443
1989-1990	388	71	459
1990-1991	377	69	446
1991-1992	337	84	421
1992-1993	369	71	440
1993-1994	375	80	455
1994-1995	376	105	481
1995-1996	349	85	434
1996-1997	341	83	424
1997-1998	284	82	366
1998-1999	259	79	338
1999-2000	276	93	369
Guztira	4.649	1.183	5.832

Haur eta gazteen irakaskuntza izan bada ere euskaldunen ehunekoak eta kopuruak gehien handitu dituena, helduen euskalduntzea eta, askoz neurri txikiagoan alfabetatzea ere, ahalegin horretan aritu dira.

Beraz, lasartearren artetik, Lasarte-Oriako euskaltegietan eta Lasarte-Oriatik kanpoko euskaltegietan matrikulatutako ikasleak batuz gero, 5.832 ikasle matrikulatu dira guztira 1986 eta 1999 bitartean. Ikasle bakoitzak, ordea, ikaskuntzako prozesuan zehar, matrikula bat baino gehiago egin ohi du normalean, eta, beraz, kopuru hori ez dagokie Lasarte-Oriako 5.832 pertsona banakori, ikasturte bakoitzean matrikulatu diren lasartearren baturari baizik.

Guztira, 1986-87 ikasturtetik 1999-2000 ikasturtera, 2.688 ikasle banako aritu dira Lasarte-Oriako bi euskaltegietan (Lasarte-Oriako euskaltegietatik kanpo aritu direnak alde batera utzi ditugu ez dakigulako taulan azaltzen diren kopuru horietatik zenbat diren pertsona banakoak –pertsona bakoitza behin baino gehiagotan matrikula daitekeelako eta matrikulatu ohi delako gehienetan–).

2.688 ikasle horietatik, 2.253 izan dira lasartearrak. Kopuru hori esanguratsua da oso; izan ere, gogoan izan behar dugu 16 urtez gorako lasartearrak 15.000 inguru izan direla, eta, beraz, Lasarte-Oriako helduen %15 inguru euskaltegiren batean matrikulatu izan dira azken 15 urteetan (ehuneko hori dezentez handiagoa da euskaltegietan matrikulatu ohi ez diren adin-tarterik helduenekoak –adinekoak– kenduz gero).

Edozein kasutan, helduen euskalduntzeak (alfabetatzeko taldeak ia-ia anekdotikoak izan dira Lasarte-Orian azken ikasturteetan) aldaketa handiak izan ditu azken urteetan; besteak beste, matrikulatutako ikasleen kopuruak jaitsiera nabaria izan du.

Jaitsiera horren lehenbiziko arrazoia da, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako datuak aztertzean ikusi dugunez, belaunaldi berriak lehen baino askoz ere euskaldunagoak sortzen dituela irakaskuntzako sistemak berak (nahiz eta horrek gaur egun ez duen esan nahi ikasle horiek euskarazko gaitasuna sendotzeko premiarik ez dutenik).

Horrez gainera, jaiotza-tasaren jaitsiera ere adin-tarte horretara iristen ari da, eta horrek ere, gutxi edo gehiago, eragiten dihardu. Badira, ordea, beste hainbat aldagai kualitatibo (administrazioko hizkuntza-eskakizunak prestatzeko ikastaroak, lana lortzeko helburuarekin matrikulatutakoak, langabeziak gizartean duen pisuak dituen gorabeherak...), bilakaera hori azaltzen dutenak.

Azken batean, bai euskararen egoera soziolinguistikoa aldatzen ari den heinean, bai biztanle bakoitzak euskara ikasteko dituen motibazioak bestelakotzen ari diren heinean, euskaltegietan matrikulatutako ikasleen kopuruak eta ezaugarriak ere mudantzak izan dituzte, eta izango ere dituzte.

Ikasle horien artean, Lasarte-Oriako euskaltegietan matrikulatutako 2.253 lasartear horien artean, euskara ikasteko prozesuak oso ezberdinak izan dira. Ikus taula.

Urrats gaindituak	Ikasleen kopurua	Ikasle guztien %
Urratsik gainditu ez dutenak	325	14,4
Urrats bat gainditu dutenak	529	23,5
Bi urrats gainditu dituztenak	497	22,1
Hiru urrats gainditu dituztenak	358	15,9
Lau urrats gainditu dituztenak	197	8,7
Bost urrats edo gehiago gainditu dituztenak	347	15,4
Guztira	2.253	100,0

325ek (%14) ez dute urratsik gainditu (multzo horretan sartuta daude bajak...), %45,6k urrats bat edo bi gainditu dituzte, %24,6k hiru edo lau, eta %15,4k bost urrats edo gehiago.

Ikasle bakoitzak lortutako maila maximoari dagokionez, berriz, datuak taula honetan sinplifikatuta bildu ditugu:

Gainditutako urrats handiena	Ikasleen kopurua	Ikasle guztien %
1. urratsa gaingitu ez dutenak	197	8,7
1., 2. edo 3. urratsa gaingitu dutenak	763	33,9
4., 5. edo 6. urratsa gaingitu dutenak	765	34,0
7., 8. edo 9. urratsa gaingitu dutenak	299	13,3
10., 11. edo 12. urratsa gaingitu dutenak	40	1,8
Alfabetatzeko urratsen bat gaingitu dutenak	189	8,4
Guztira	2.253	100,0

Beraz, %8,7k ez dute ezta 1. urratsa ere gaingitu, heren bat ikasteko prozesuaren hasieran gelditu da (1. eta 3. urratsen artean), beste heren bat 4. eta 6. urratsen artean gelditu da, eta laurdena eskas da 7.etik gorako urratsen bat gaingitzera iritsi dena.

Euskaltegietan aritu diren ikasle guztiak euskarako gaitasuna hobetu badute ere, interesgarria izan daiteke jakitea Lasarte-Oriako euskaltegietan aritutako lasartearren artean zenbat euskaldundu diren.

Erantzunak ezin du zehatza izan, "euskalduntzea" kontzeptua zehazgaitza den heinean. Hala ere, 6. urratsaren azpitik hasi eta 6. urratsa behintzat gaingitzera iritsi diren ikasleak "euskaldundutza" joz gero, 414 lagun izango lirateke Lasarte-Oriako euskaltegietan euskaldundu direnak azken 15 urte horietan, eta, maila hori 8. urratsean jarriz gero, berriz, 216 izango lirateke.

Zehaztasunez erantzun ezin badaiteke ere, interesgarria izan daiteke jakitea 1986 eta 1996 bitartean euskarak irabazitako 1.451 hiztunetatik zenbat izan daitezkeen euskaltegi bidez irabazitakoak.

Horretarako, erroldako datuak aztertzerakoan erabili ditugun tipologiek alderatzeko ariketa egin dugu (gogoan izanik erroldako tipologiak eta euskaltegiko urratsak zehatz-mehatz alderatzea ezinezkoa dela eta, beraz, ondorioak ere orientatiboak baizik ez direla).

Irabazitako hiztun horiek bi multzotan banatu ditugu "Hizkuntzaren bilakaera pertsonala" atalean (4.B.3) atalean). Batetik, *partzialki euskaldunduak*: lehen hizkuntza euskara ez beste hizkuntzaren bat izanik, euskaraz "nekez" hitz egiten edo, hitz egiten ez badu, "ondo" ulertzen eta irakurtzen duen pertsona. Eta, bestetik, *euskaldun berriak*: lehen hizkuntza euskara ez beste hizkuntzaren bat izanik, euskaraz "ondo" ulertzen eta hitz egiten duen pertsona.

Partzialki euskaldundutzat jo ditugu²⁰ euskaltegian 1. urratsean hasi eta 3.etik 5.era bitarteko urratsen bat gainditu duten 212 pertsonak, eta euskaldun berrizat, berriz, 1. urratsean hasi eta 6. urratsa bederen gainditu duten 39 pertsonak.

Hortaz, gogoan izanik 1986 eta 1996 bitartean euskarak izan dituen irabazi partzialak (partzialki euskaldundu direnak) 329 izan direla eta erabateko irabaziak (euskaldun berriak), berriz, 1.122 izan direla, 329 lagun horietatik 212 (%64) izan daitezke Lasarte-Oriako euskaltegietan partez euskaldunduak, eta, erabat euskaldundutako 1.122 herritar horietatik, berriz, 39 (%3,5) izan daitezke Lasarte-Oriako euskaltegietan euskaldunduak.

Guztira, hamar urte horretan euskarak Lasarte-Orian irabazi zituen 1.451 lagunetatik (partzialki edo erabat euskaldunduz) 251 (%17) izan daitezke Lasarte-Oriako euskaltegien bidez irabaziak.

²⁰ Erroldako datuetako *Lehen hizkuntza* eta *Hizkuntza gaitasuna* gurutzatuz ondorioztatzen den *Hizkuntza bilakaera pertsonalaren* tipologia ezin dira zuzenean euskaltegietako ikasleen datuetatik atera, azken horietan ikaslearen lehen-hizkuntza zein den ez dagoelako jaso. Horren orde, lehen hizkuntza euskara ez duten pertsonak aukeratzeko (hori baita euskarak izan dituen irabaziak kontatzeko lehen baldintza) euskaltegian 2. urratsaren azpitik hasi diren pertsonak aukeratu ditugu (beraz euskaraz ezer ez zekiten pertsonak direnez, lehen-hizkuntza euskara ez izatearekin parekatu ditugu). Bigarren baldintzari dagokionez, berriz, partzialki euskaldunberri (irabazi partziala) eta euskaldunberri (erabateko irabazia) izatera iritsi izana defintzeko, 3. eta 5. urratsa arteko urratsen bat gainditu izana jarri dugu lehendabizikoan kasuan eta 6. urratetik gora bigarrenengoan kasuan. Ariketa hori egiterakoan, gogoan izan behar da ere, erroldan jasotako datua dela norberak bere hizkuntza gaitasunari buruz duen ustea.

6.- Euskararen kaleko erabilera

A) Sarrera

Lasarte-Oriako euskararen egoeraren berri izateko beste elementu bat da euskararen kaleko erabileraren neurketa, erroldak 5 urtetik behin ematen dizkigun hizkuntzazko gaitasunaren datuen eta egin ditzakegun beste ebaluazio kualitatiboen osagarri.

Baina, beste elementu bat izateaz gain, hizkuntzaren berreskurapena edo atzerakada neurtzeko neurgailurik garrantzitsuenetako bat da. Hizkuntza, batez ere, hitz egiteko da, eta, beraz, hizkuntza baten osasun-maila (edo normalizazio-maila) erabilerak berak zehazten digu. Bai hizkuntzarekiko jarrera eta iritziak, eta bai haren jakite-maila ere, tarteko urratsak dira, ezinbestekoak, baina ez nahikoak.

Neurketa hori²¹ kalean egin da, eta urtero baldintza bertsuak (kale beretan, egun beretan...) mantentzeko ahalegina egin da. Neurketa egiteko, herria 5 ibilbidetan banatu da, ibilbide bakoitza auzo bakoitzari dagokio, gutxi gorabehera, eta urtero neurketa 5 egunetan egiten da, egun bakoitzean bi orduz behatuz.

Erabilera neurtzeko, sexua eta adina ere kontuan hartu dira. Lau adin-multzo bereizi dira:

0-14 urte:	haurrak
15-24 urte:	gazteak
25-64 urte:	helduak
>= 65 urte:	adinekoak

Neurketa horiek guztiak Udaleko Euskara-Zerbitzuak egin ditu, eta neurketa horietan jasotako datuen laburpena da orri hauetara ekarri duguna²².


²¹ Ikus BAT aldizkariaren 3/4.zkia (1991). "Dosierra: Euskararen kale-erabilpenaren neurketa".

²² LASARTE-ORIAKO UDALA. EUSKARA ZERBITZUA (2001). *Euskararen kaleko erabileraren neurketa 2001*. Lasarte-Oria. Txosten argitaratu gabea.

B) 1990 eta 2001 bitarteko neurketak

Urtea	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
1990*	11,2	1,3	9,2	13,1	8,3
1991*	19,7	5,8	11,1	7,4	11,3
1992*	19,7	10,9	10,4	20,7	13
1993*	24,7	13,6	11,7	19,2	15,1
1994	20,8	10,1	9,7	16,6	13
1995	15,9	11,9	9,8	11,7	11,3
1996	15,9	6,9	8,5	14,4	11
1997	17,7	5,1	9,2	19	11
1998	21,8	13,5	11,8	21,9	15,7
1999	32,3	11,9	12,7	15,1	17,8
2000	18,9	13,9	9,3	11,3	12,4
2001	24,5	18,2	16,7	14,0	18,3

* 1993. urtera arteko neurketak alde aurretik zehazturiko kopuru jakin bat neurtuz egin ziren. 1994. urtetik aurrerakoak, berriz, zehazturiko denbora-tarteetan neurtzen den guztia jasoz egiten dira.



C) Emaitzen irakurketa

2001eko kaleko neurketak azaltzen duenaren arabera, Lasarte-Orian, euskararen kaleko erabilera %18,3koa da (alegia, neurtutako egun horietan, entzundako jendearen %18,3 zirela euskaraz ari zirenak, eta gainerako %81,7 gaztelaniaz ari zirela).

1) Neurtutako pertsonak

Neurtutako pertsonak 5.586 oinezko izan dira, Lasarte-Oriako populazioaren %31,5 (1994tik aurrera, 5.000tik 8.000ra biztanle neurtu ditugu urtero). Kopuru horiek adierazten digute emaitzek fidagarritasun handia dutela.

2) Ondorio nagusiak

Hamabi urteetako neurtaldietatik bederatzitan, emaitzak %13 ± 2 tartean gertatu dira (zazpi neurtaldi 12 ± 1ean sartu dira). Azken urteetako datuek, ordea, tarte hori handitzea iradokitzen dute, eta azken lau urteetako emaitzak %15 ± 3 tartean egokitu dira (horietatik hiru %17 ± 1 tartean). Hala ere, datuen sekuentzia luzeagoa beharko da balizko igoera hori baieztatzeko.

Haurren erabilerari dagokionez, hamabi urteetako neurtaldietatik zortzitan, erabilera %18 ± 3 tartean atara da. Hala ere, azken urteko datuak behartu egiten du tarte hori, eta %20 ± 5eko tartean sar daitezke azken hamabi neurtaldietatik hamar.

Gazteei behatzen zaienez, berriz, hamabi urteetako neurtaldietatik zazpitan, erabilerak %12 ± 2 tartean biltzen dira, nahiz eta bost neurketa tarte horretatik erabat kanpo geratu, beste lau azpitik, eta azken urtekoa goitik. Datu hori esperantzagarria bada ere, urte gehiagoko neurketak beharko dira baieztatzeko.

Helduen kasuan, 2001ekoa izan ezik, neurtaldi guztiak %10 ± 2 tarteak bildu ditu.

Adinekoen den bezainbatean, berriz, gorabehera handiak dituen adin-taldea da (neurtutakoen kopuruaren gorabeherak eraginda, batez ere), eta ezin zaio joera nabarmenik antzeman. Azken hamabi urteetako neurtaldietatik hamaika multzokatzeko, %16 ± 4 tarte finkatu behar da.

Hala ere, urte batetik besterako gorabehera baino gehiago, urteetako segida osoari begiratu behar zaio. Arrazoibide horri jarraituz, datozen urteetako neurketek adieraziko dute joera berri horiek finkatuko diren edo ez.

3) Adin-taldeak

Emaizak adin-taldeen arabera aztertuz gero, haurrak izan dira 2001ean euskara gehien erabili dutenak (%24,5); ondoren, gazteak (%18,2); gero, helduak (%16,7); eta, azkenik, adinekoak (%14,0). Hurrenkera hori gertatzen den lehenbiziko aldia da; izan ere, gehienetan, adinekoen ehunekoak gazteena eta helduena baino handiagoa izan da.

4) Sexua

Emaizak sexuaren aldagaiaren arabera aztertuz gero, 2001ean emakumezkoen aldeko 3 punturen aldea aterata da (16,7 eta 19,7). Aldagai hori neurtu den zazpi neurtaldietatik bostetan, emakumezkoek gizonezkoek baino ehuneko handiagoa eman dute euskararen erabilerari dagokionez. Haurren kasuan, sexuaren aldagaiak ez du homogeneotasunik erakusten (4tan mutikoena altuagoa izan da, eta 3tan, berriz, neskatoena). Gazteen eta helduen kasuan, ordea, neurtaldi guztietan erabili dute emakumezkoek gizonezkoek baino euskara gehiago.

Urtea*	Gizonezkoak	Emakumezkoak	GUZTIRA
1995	11,5	12,3	12
1996	11,6	10,4	11
1997	9,8	12,2	11
1998	15,3	16	15,7
1999	18	17,6	17,8
2000	11,3	13,3	12,4
2001	16,7	19,7	18,3

* Sexuaren aldagaiak 1995eko neurtetan jaso zen lehenengo aldiz.

5) Auzoak

Auzoetan erreparatuz gero, urtero bezala, Zabaleta auzoan izan du erabilerak ehunekorik jasoena; segidan, erdialdean; eta, udalerriko batez bestekoaren azpitik, Zumaburu / Goikalen, Sasoetan eta Oztaran / Orian.

Urtea	Erdialdea	Zabaleta	Sasoeta	Oztaran eta Oria	Zumaburu eta Goikale	Guztira
1990*	9,6	40	2,2	8,2	7,6	8,3
1991*	17,8	46,1	3,7	8,6	7,2	11,3
1992*	27,7	56,9	2	6,5	9,5	13
1993*	25,2	44,6	4,7	11,8	9,3	15,1
1994	15,6	27,5	5,6	11,9	10,9	13
1995	18,3	51,4	3,6	5,2	6	12
1996	14,1	37,9	7	6,8	8,6	11
1997	18,1	55,7	4,6	5,7	7,8	11
1998	21,9	59,6	4,5	7,3	13,8	15,7
1999	26,5	69,9	6,2	10,2	10,6	17,8
2000	18,5	39,0	8,7	8,5	7,8	12,4
2001	24,3	51,6	12,2	8,3	17,6	18,3

6) Asteko egunak

Azkenik, neurtaldiei dagokien aldetik, ia urtero asteazken arratsaldea izan da ehunekorik altuenekoa; ondoren, asteazken goizekoa; eta segidan, udalerriko batez bestekoaren azpitik, igande goiza, larunbat arratsa eta igande arratsaldea.

Urtea	Asteazken goiza	Asteazken arratsa	Larunbat arratsa	Igande goiza	Igande arratsa	Guztira
1990*	12,3	15,3	5,7	6,3	1,9	8,3
1991*	13,9	18	7,9	10,3	6,5	11,3
1992*	14,7	16,4	6,8	6,8	10,1	13
1993*	15,6	16,4	18	14,7	10,6	15,1
1994	15,2	15,6	8,3	18	11,5	13
1995	12,4	19,1	11,8	8,5	9,4	12
1996	10,7	14,8	14	6,7	8,2	11
1997	9,3	17,9	8	11,8	7,7	11
1998	19,7	18,9	13,8	17,3	11,1	15,7
1999	18,6	22,2	15,6	15,2	17,9	17,8
2000	17,1	24,7	10,9	8,2	7,7	12,4
2001	37,8	21,2	11,2	14,6	10,3	18,3

7.- Etxeko hizkuntza

A) Sarrera

Etxeko hizkuntza etxean erabiltzen den hizkuntza da.

Hemen jasotako datuak biztanleen udaleko erroldan daude oinarrituak²³. Zehazkiago, 1991ko eta 1996ko erroldak betetzerakoan “Zein hizkuntza erabiltzen duzu zuk maizen zure etxean?” galderari emandako erantzunetatik ateratako datuak dira. Galdera horrek lau erantzun posible zituen:

- Euskara
- Gaztelania
- Biak
- Beste bat

Lehen hizkuntzari buruzko atalean aipatu dugunez, lehen hizkuntza (edo hizkuntzak) izan ohi da pertsona baten hizkuntzazko gaitasunean gehien eragiten duen faktorea, eta lehen hizkuntza etxean erabiltzen den hizkuntzarekin lotuta dago gehienetan.

Etxeko hizkuntzak duen garrantziagatik, hain zuzen ere, esan ohi da familia bidezko hizkuntzaren transmisioa dela (belaunaldi batek hurrengoari egiten diona, alegia) normal bizi nahi duen hiztun-komunitate batean normalizatu behar den lehena, eta, beraz, hizkuntza horretan normal bizi nahi duten hiztunek praktikan jarri behar dutena.

²³ EUSKO JAURLARITZA (1999). *II. Soziolinguistikazko mapa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

B) Datu orokorrak

1) Etxeko hizkuntza 1996ko erroldan

1996	Euskara	Biak	Gaztelania	Besteren bat	Biztanleak ²⁴
Kopurua	2.672	1.869	12.540	82	17.163
%	15,6	10,9	73,1	0,5	100

Taulak dioenez, lasartearren %26,5ek dute euskara etxeko hizkuntza (%15,6k euskara soilik eta %10,9k gaztelaniarekin batera). Biztanle gehienek –%73,1ek, alegia– gaztelania bakarrik dute etxeko hizkuntza.

2) Lehen hizkuntzaren bilakaera 1991tik 1996ra

Δ	Euskara		Biak		Gaztelania		Besteren bat		Biztanleak
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
1991	3.033	17,5	1.729	10,0	12.490	72,0	102	0,6	17.354
1996	2.672	15,6	1.869	10,9	12.540	73,1	82	0,5	17.163
Aldea	-361	-1,9	+140	+0,9	+50	1,1	-20	-0,1	-191

Ikus daitekeenez, etxeko hizkuntzak, ama-hizkuntzak bezala, gutxi bada ere, behera egin du lasartearren artean, bai kopuru absolutuetan, bai ehunekoetan (27,5etik 26,5era).

Lehen hizkuntzaren kasuan bezala, hizkuntzaz mistoak diren familien ugaritzeak berekin ekarri du euskara etxeko hizkuntza erabilienera izateari dagokion ehunekoa jaistera eta euskara eta gaztelania, biak, izateari dagokion ehunekoa igotzea.

Horrek ondorio onak eta txarrak ditu. Onak, bikote misto horietako seme-alabek euskara familian ere jasotzeko aukera izango baitute. Txarrak, hizkuntza ezingo baita transmititu bikote euskaldunetan bezainbateko kantitateaz eta kalitateaz.

²⁴ Erroldako datu guztietan, 5 urte baino gehiagoko biztanleak hartu ditugu kontuan

Adinaren arabera aztertuz gero, ordea, ikus daiteke, adinak behera egin ahala, 20-24 urtetik behera, euskara gero eta gehiago erabiltzen dela etxean, bai soilik, bai gaztelaniarekin batera (5-9 urtekoen artean, %20,2k eta %20,4k, hurrenez hurren). Ikus taula.

Adin-tartea	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Besteren bat
5-9	20,2	20,4	58,9	0,5
10-14	16,8	16,0	66,8	0,4
15-19	14,2	11,6	74,0	0,2
20-24	11,2	12,1	76,2	0,5
25-29	13,7	10,5	75,6	0,2
30-34	14,7	12,8	71,9	0,6
35-39	17,1	12,3	70,0	0,7
40-44	14,5	8,4	76,7	0,4
45-49	13,4	8,5	77,5	0,6
50-54	10,5	7,3	81,4	0,8
55-59	15,5	8,2	75,9	0,4
60-64	20,3	10,5	68,6	0,6
65-69	26,3	8,4	64,9	0,5
70-74	29,7	7,9	62,2	0,2
75-79	19,1	8,2	72,8	0,0
80-84	27,5	9,6	61,0	1,8
>=85	16,6	10,2	73,2	0,0


C) Euskararen erabilera etxean eta kalean

Ingurune erdaldunetan ohikoa denez, Lasarte-Orian ere euskaldunen dentsitatea handiagoa da etxean kalean baino (euskaldunak etxeetan proportzionalki banatuta egon ordez, familia batzuetako kide guztiak edo ia guztiak dira euskaldunak, eta beste familietako kide guztiak edo ia guztiak dira erdaldunak).

Ondorioz, euskaraz aritzeko aukera gehiago daude etxean kalean baino, eta, egin ere, gehiago egiten da. Hori oro har horrela bada ere, ez da etxe guztietan gertatzen; batez ere, euskaldun berrien kasuan (gehienak etxetik kanpo –eskolan, euskaltegian...– egin baitira euskaldun).

Grafikoan ikus daitekeenez, adin-tarte guztietan erabiltzen da euskara gehiago etxean kalean baino. Totalak alderatuz gero, berriz, 1996an %21 ekoa izan zen etxeko erabilera²⁵ eta %11koa kalekoa (nahiz eta ondoren egindako neurketetan erabileraren ehunekoa handiagoa izan den).

Euskararen etxeko eta kaleko erabilera, 1996



²⁵ Etxeko erabileraren kopurua ateratzeko, "euskara" erantzunari "biak" erantzunaren kopuruaren erdia gehitu diogu. Horretaz gain, etxeko eta kaleko erabilera neurtzeko baliatutako adin-tarteak bat ez zetozenez gero, etxeko erabileraren kasuan, adin-tartearen barruan euskara gutxien erabiltako bost urteko multzoaren kopurua jarri dugu grafikoan. Bestalde, datuak konparatzeko modukoak izate aldera, 1996ko kaleko neurketako eta urte bereko erroldako datuak hartu ditugu.

8.- Euskarak hainbat eremutan duen egoera

Orain arte azaldutakoak, batez ere, euskararen egoera demolinguitikoa jasotzen badu ere (pertsonak dakizkiten eta darabiltzaten hizkuntzen gaineko informazioa), edozein hizkuntzaren egoera aztertzerakoan, oso garrantzitsua da egoera funtzionala ere nolakoa den jakitea. Hau da, hizkuntza hori zertarako eta bizitzako zein eremutan erabiltzen den jakitea.

Beste era batera esanda, gerta daiteke hizkuntza batek hiztun gutxi izatea, baina hiztun horiek hizkuntza hori zeregin guztietarako erabiltzea. Kasu horretan, *hizkuntza minoritarioa* izango da (hiztun gutxi dituen heinean), baina egoera normalizatua izango du (zeregin gehientsunetarako erabiltzen den heinean).

Kasu askotan, ordea, hizkuntzak duen hiztun-kopuruaz aparte, hizkuntza hori ez da zeregin edo bizitzako eremu gehientsunetarako erabiltzen dena izaten. Horrelakoetan, euskara kasu, *hizkuntza egoera minorizatuan* dago.

Ondorioz, hau da erantzun beharreko hurrengo galdera: zein da euskararen egoera funtzionala Lasarte-Orian? Edo, beste hitz batzuekin galdetuta, zertarako eta zenbat erabiltzen da euskara Lasarte-Orian?


Erantzuna ez da ez erraza ez erabatekoa. Erraza ez da, bizitzako eremu guztietako egoera linguistikoa biltzen duen estudiorik ez dagoelako (ez Lasarte-Oriaren kasuan, ez beste lur-eremuen kasuan ere).

Erabatekoa ere ez da izango, egindako estudioek eremu batzuetako elementu batzuk bakarrik aztertzen dituztelako. Nolanahi ere, gogoan izan behar dugu arlo guztietako elementu guztien hizkuntzazko egoera jasotzea ia ezinezkoa dela, errealitate osoa eta uneoro aztertzea ezinezkoa den neurrian.

Muga horiek oso gogoan izanik, baina hizkuntzaren eremuz eremuko egoeraren berri izatea zein garrantzitsua den ahaztu gabe, Lasarte-Orian euskarak eremuz eremu duen egoera hori islatu nahi izan dugu, labur-labur eta iritzia tartekatuz bada ere.

Horretarako, lasartearren hizkuntzazko errealitatea zortzi eremutan bildu dugu: familia, lagunartea, aisia eta kultura, zerbitzuak, irakaskuntza, komunikabideak, administrazioa eta lana.

ADINA



Aurreko orriko grafikoak²⁶ adin-tarte bakoitzaren errealitatea zein eremuk edo jardun-esparruk osatzen duten jasotzen du. Espazioei ematen zaien balioa estimatiboa da eta ez du inolako zehaztasun zientifikorik izan nahi. Duen helburu nagusia eremu horietaz jabetzea eta adin-tarte bakoitzean lehenetsuneko eremuak zeintzuk eta nolakoak izan daitezkeen argitzen laguntzea da.

A) Familia

Bi datu nagusi ditugu, euskarak Lasarte-Orian duen egoera azaltzen dutenak: *etxean erabilitako hizkuntza* eta *lehen hizkuntza*.

%	Etxean erabilitako hizkuntza			Lehen hizkuntza		
	Euskara	Biak	Guztira	Euskara	Biak	Guztira
1986	—	—	—	24,9	3,4	28,3
1991	17,5	10,0	27,5	25,8	3,3	29,1
1996	15,6	10,9	26,5	23,1	4,9	28
<i>Adin-tarteka</i>	(1996)					
5-9	20,2	20,4	40,6	24,8	13,5	38,3
10-14	16,8	16,0	32,8	20,3	12,1	32,4
15-19	14,2	11,6	25,8	18,3	8,5	26,8
20-24	11,2	12,1	23,3	17,3	8,3	25,6

- ✓ Euskara (bakarrik edo gaztelaniarekin batera) etxean erabiltzen duten herritarrak, herritar guztiak kontuan hartuta, gutxi bada ere, erlatiboki gero eta gutxiago dira (%27,5etik %26,5era).
- ✓ Ondorioz, lehen-hizkuntza euskara dutenak (bakarrik edo gaztelaniarekin batera), herritar guztiak kontuan hartuz, gutxi bada ere, erlatiboki gero eta gutxiago dira (%28,3tik %28,0ra).
- ✓ Adin-tarterik gazteenetan, adinak behera egin ahala, gero eta gehiago dira euskara (bakarrik edo gaztelaniarekin batera) etxean erabiltzen dutenak (%23,3tik %40,6ra).

²⁶ LASARTE-ORIAKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA..(1990). 1990erako Euskara Batzordearen Hizkuntz Normalizazio Plangintza. Lasarte-Oria. Txosten argitaratu gabea.

- ✓ Ondorioz, adinak behera egin ahala, gero eta gehiago dira euskara (bakarrik edo gaztelaniarekin batera) lehen hizkuntza dutenak (%25,6tik %38,3ra).
- ✓ Ondorioz, gehitzen ari da euskararen familia bidezko transmisioa (egun transmisioa gertatzen ari den belaunaldietan).
- ✓ Kualitatiboki, ordea, familiaren kontzeptua aldatzen ari da. Gizartea aldatuz doan heinean, gizartea osatzen duten harreman-sareak ere (familia da harreman-sareetako bat) aldatzen ari dira.
- ✓ Aldaketa horien barruan (emakumeak lan-munduan sartzea, telebista...), gutxitzen ari da familiak lehen zuen intentsitatea (harremanen maiztasunari dagokionez behintzat).
- ✓ Ondorioz, hizkuntza familia bidez transmititzeko prozesua ere aldatzen ari da. Hizkuntzen transmisiorako mekanismo nagusia izan den hori, familia, garrantzia galtzen ari da. Zeregin hori, gero eta partekatuagoa du beste hainbat mekanismorekin (eskola, telebista...)²⁷.
- ✓ Familietako hizkuntzazko egoera gero eta heterogeneoagoa da. Bikote euskaldunak eta hizkuntzaz mistoak direnak ugaltzen ari dira, eta, horien artean, hizkuntzaren jakite-maila ere gero eta dibertsoagoa da.
- ✓ Ondorioz, euskararen familia bidezko transmisioa, gehitzen ari bada ere, hizkuntzaren kalitateari dagokionez (ahozkoa bederen), okertzen ari da (gogoan izan behar da, orain arte, soilik jatorriz euskaldunak ziren bikoteetan transmititzen zela gehienbat euskara familian, eta orain ez).
- ✓ Euskara familia bidez transmititzeko kontzientzia, aldiz, gehitzen eta hobetzen ari da, ustez behintzat.

B) Lagunartea

Euskara eta lagunartea Lasarte-Orian uztartzen dituen iturri kuantitatibo bakarra Euskarako Zerbitzuak urtero egin duen *Euskararen kaleko erabileraren neurketa* da. Urtez urte izandako gorabeherak saihestuz, taulan bildutako tarteetan kokatzen dira azken hamaika urteetan egindako neurketa gehienetan euskararen erabilerak eman dituen ehunekoak:

Urte-tartea	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
1990 / 2001	20 ± 5	12 ± 2	10 ± 2	16 ± 4	13 ± 2

²⁷ HERNANDEZ, Jone Miren eta IRAOLA, Joxe Mari. (1996). *Euskararen familia bidezko transmisioa Lasarte-Orian. Transmisio-kanpainen ebaluaketa eta etorkizunerako joerak*. Lasarte-Oria: Txosten argitaratu gabea.

- ✓ Lagunartean euskara erabiltzeko ohiturak ez du aldaketa handirik izan azken urteetan. Hala ere, goranzko joera nabaritzen da, txikia bada ere.
- ✓ Adinak behera egin ahala, erabilerak gora egiten duela dirudi (nabarmen haurren artean, ez hainbeste gazteen artean).
- ✓ Datuak alderantziz irakurrita, haurrek beren artean euskaraz egiteko duten joerak behera egiten du haur horiek gazte bihurtuz doazen heinean. Haurrak gizarteratzen diren une horien garrantzia (hizkuntzazkoa ere) laburtzeko, argigarri iruditu zaigu aipamen hau²⁸:

“Las culturas parentales pueden considerarse como las grandes redes culturales, definidas fundamentalmente por identidades étnicas y de clase, en el seno de las cuales se desarrollan las culturas juveniles, que constituyen subconjuntos. Refieren las normas de conducta y valores vigentes en el medio social de origen de los jóvenes. Pero no se limita a la relación directa entre «padres» e «hijos», sino a un conjunto más amplio de interacciones cotidianas entre miembros de generaciones diferentes, en el seno de la familia, el vecindario, la escuela local, las redes de amistad, las entidades asociativas, etc. Mediante la socialización primaria, el joven interioriza elementos culturales básicos (uso de la lengua, roles sexuales, formas de sociabilidad, comportamiento no verbal, criterios estéticos, criterios de adscripción étnica, etc.) que luego utiliza en la elaboración de estilos de vida propios” (azpimarratua gurea da).

- ✓ Euskara dakitenen ehunekoak izan duen gorakadak (belaunaldi berriek euskaraz ikasi izanaren ondorioz, batez ere) ez du neurri bereko islarik lagunarteko jardunean.
- ✓ Kualitatiboki, ordea, lagunartean kontzeptua ere aldatzen ari da. Gizartea aldatuz doan heinean, gizartea osatzen duten harreman-sareak ere (lagunartea ere) aldatzen ari dira.
- ✓ Aldaketa horien barruan (aisiako ohitura berriak, zentro komertzial handiak, telebista, Internet...), lagunartean lehenago zituen denbora eta espazioa aldatzen ari dira.
- ✓ Aldaketa horien barruan, komunikatzeko moduak ere aldatzen ari dira (telebistaren ondorioz, batez ere), eta, oro har, jendea galtzen ari da hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna, bai egoera formaletan, bai egoera informaletan (lagunartean).
- ✓ Ondorioz, lagunartean euskaraz hitz egiteko gaitasun komunikatiboa txirotzen ari dela uste dugu.

²⁸ FEIXA, Carles (1998). *De jóvenes, bandas y tribus*. Barcelona: Ed. Ariel.

C) Aisialdia eta kultura

Ez da erraza «aisia eta kultura» esparrua zer den eta nola osatua dagoen zehaztea, eta era batean baino gehiagotan egin daiteke. Hemen, erakundeen bidez antolatutakoaz bakarrik jardungo dugu: oro har, Udalak, ikastetxeek eta herriko elkarteek antolatutako aisia eta kultura. Euskarazko kultura-produktuen kontsumoaz ere jardun genezake (liburuak, musika...), baina ez dugu daturik, eta ez dugu uste ere Euskal Herrian elementu horiek duten kontsumoaren batez bestekoaren oso desberdina izango denik Lasarte-Orian.

Komunikabideak atal honetan sar bagenitzakeen ere (funtzio nagusia aisia duten heinean), berariaz jorratu ditugu beste atal batean.

1) Haurrak eta gaztetxoak

I 6 urte arteko haurren eta gaztetxoaren eskola-orduz kanpoko jardueren hizkuntzazko egoera hobetzeko helburuarekin, *Kalea Maixu!* programa jarri genuen martxan 1990-91 ikasturtean.

Programa horren barruko zereginetako bat izan da jarduera horien hizkuntzazko egoera neurtzea urtez urte²⁹. Programa horren bidez, herrian eskola-orduz kanpo antolatzen diren jarduera gehientsuenen (kirola, erlijioa, dantza, musika...) datuak biltzen ditugu. Datu horietatik atera dugu ondorengo taula.

Ikasturtea	Begiraleak					Haurrak					
	Guztira	Gaitasuna		Erabilera		Gaitasuna			Erabilera		
		Euskaldunak	%	Euskaraz	%	Guztira	Euskaldunak	%	Guztira	Euskaraz	%
1990-1991	289	199	69,1	144	49,7	9.328	5.429	58,2	4.633	635	13,7
2000-2001	339	291	85,8	224	77,0	10.142	10.000	98,6	6.190	5.261	85,0

- ✓ Lasarte-Oriako eskola-orduz kanpoko jardueretan diharduten begirale gehienak (%86) gai dira eskola-orduz kanpoko jarduerak euskaraz egiteko.
- ✓ Lasarte-Oriako I 6 urte bitarteko haur eta gaztetxo ia-ia guztiak dira euskaldunak (B eta D eruedetan ikasten dute).

²⁹ LASARTE-ORIAKO UDALEKO EUSKARA-ZERBITZUA. (2001). *Kalea Maixu! 2000-2001 ikasturteko memoria*. Lasarte-Oria: Txosten argitartu gabea.

- ✓ Erabilerari dagokionez, berriz, begirale euskaldun gehienek diote (10etik ia 8ik) euskaraz egiten dietela eskola-orduz kanpoko jardueretan zuzentzen dituzten haur eta gaztetxoei.
- ✓ Haurrei dagokienez, berriz, eskola-orduz kanpoko jardueretan euskaraz egiten dute beren artean 10etik 8k, arduradunek esandakoaren arabera.
- ✓ Edozein kasutan, haur eta gaztetxoen aisialdia ere eraldatzen ari da, eta gero eta pertsonaren garapen profesionalari begirakoago bihurtzen ari da, ludikotasunaren eta hezkuntzako balioen kaltetan³⁰. Puntu hori oso kontuan hartzekoa da aisiako eskaintza euskalduntzeko etorkizuneko ahaleaginean.

2) Gazteak, helduak eta adinekoak

Gazteen, helduen eta adinekoen aisiaren eta kulturaren hizkuntzazko egoera datuetan laburbiltzea ezinezkoa zaigu. Ez dugu ez estudiorik ez eremu horiek hezurmamitzen dituzten azpieremuen, jardueren edo ekintzen sailkapenik ere egin. Beraz, aipatuko ditugunak gure usteen arabekoak dira soilik.

- ✓ Oro har, gauza gehienak (kirola, jaiak, musika, antzerkia, ikastaroak...) gaztelaniaz antolatzen dira. Salbuespenak gero eta gehiago dira.
- ✓ Hainbat zerbitzutan, aukera daiteke hizkuntza, baina salbuespen dira.
- ✓ Zenbait arlotan, zinema kasu, euskararen absentzia ia erabatekoa da.
- ✓ Herrian ez sortu arren lasartearrek kontsumitzen duten aisia eta kultura (liburuak, musika...) gaztelaniaz da gehienbat.
- ✓ Euskaraz antolatzen diren gauzen artean, Euskal Herriko kulturaren arlo tradizionaletako ekintzak dira gehienbat.
- ✓ Hizkuntza batean zein bestean egin daitezkeen zenbait jarduera (ikastaroak...) gaztelaniaz antolatzen dira ia beti. Errealitate horren arrazoia, gehienetan, antolatzaileen hizkuntzazko inertzia (gaztelaniazkoa) edota erdaldun elebakarrek sortarazten duten hizkuntzazko derrigortzea izan ohi dira.
- ✓ Euskaraz soilik jaso daitezkeen aisiako eta kulturako jarduera erakargarriak salbuespen dira, eta, oraingoz, euskara normalizatzeko erakundeetatik sortutako ekimenak dira ia erabat.

³⁰ MARITNEZ, Zesar eta beste (2000). *Haur eta Nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

- ✓ Edozein kasutan, gazteen aisialdia eta kultura kontsumitzeko joerak ere eraldatzen ari dira³¹, eta horiek ere oso gogoan izan beharko dira gazteen aisiako eta kulturako eskaintza euskalduntzeko etorkizuneko ahaleaginean.

D) Zerbitzuak

Zerbitzuei buruzko atal honetan ere ez dugu daturik izenburu horren pean sar genitzakeen azpieroem guztien hizkuntzazko egoera laburbil dezakeenik. Atal honetan, merkataritzaren alorra aztertuko dugu; alde batetik, zerbitzuen barruan azpieroem garrantzitsua delako, eta, bestetik, horko datuak bakarrik ditugulako. Informazioa Euskarako Zerbitzuak *Euskara Merkataritzara* programa kudeatzeko erabiltzen duen *MerkaData* datu-basetik ateratakoa da.

a) Establezimendu komertzialetako arduradunen eta enplegatuen hizkuntzazko gaitasuna

2001	Euskaldunak	la euskaldunak	Erdaldunak	Ez daki / Ez du erantzun	Guztira
Arduradunak	31,4	14,4	27,5	28,7	487
Enplegatuak	50,7	—	—	—	613
Erosketako arduradunak ³²	37,6	21,6	40,0	0,8	370

- ✓ Erosketan parte hartzen duten agenteen euskarazko gaitasunari dagokionez, erosle euskaldun baino saltzaile euskaldun gehiago dago proportzioan; hau da, biztanle euskaldunen ehunekoa (%35) eta erosketen arduradunen ehunekoa (%37) baino handiagoa da enplegatu euskaldunen ehunekoa (%50).

³¹ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2001). *Gazteei eta kulturari buruzko hausnarketa. Gipuzkoa 2001*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

³² "Establezimenduetako bezeroen eta hizkuntza ohitura eta jarrerei buruzko inkesta". 2000. Siadeco.

b) Establezimenduetan erabiltzen dituzten hizkuntzak, ageriko eta barruko elementuetan eta publizitatean

2001	Ageriko elementuak			Barruko elementuak			Postontzietako publizitatea (2000)
	Errotulua	Ordutegia	Poltsak	Zigilua	Tiketa	Faktura	
Euskaraz / Euskaraz gehiago	19,1	9,9	4,9	10,6	1,4	1,4	0,8
Bietara	13,4	21,9	8,0	5,7	3,8	6,8	10,4
Erdaraz / Erdaraz gehiago	31,8	9,7	13,4	44,1	15,8	35,8	79,4
Bestela (ez du, informaziorik ez, izen berezia...)	35,7	58,5	73,7	39,6	79,0	56,0	499 ale

- ✓ Merkataritzako elementu idatzietan, askoz presentzia txikiagoa du euskarak gaztelaniak baino. Berezi aipatzekoa da etxeetako postontzietan banatzen den publizitateak (500 idatzi banatu ziren 2000n) hizkuntzaren aldetik duen tratamendua.

c) Bezeroen hizkuntzako ohiturei eta jarrerei buruzko inkesta³³

- ✓ **Euskararen erabilerari dagokionez**, euskara gehien erabiltzen den esparru sozialen artean daude merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduak, erosketako arduradunen %30 inguruk euskaraz hitz egiten baitute (soilik edo erdararekin batera) komertzioetan eta tabernetan. 35 urte bitarteko erosketako buruen artean, esparru horietako euskararen erabilera batez bestekoa baino handiagoa da.
- ✓ Bestetik, arduradun euskaldunen %80 inguruk diote “beti”, “gehienetan” edo “ahal duten guztietan” euskaraz hitz egiten dutela merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduetan, eta beste %9 inguruk “batzuetan” hitz egiten dutela.
- ✓ Erosketako arduradun euskaldunei euskara gehiago erabili ahal izateko dituzten eragozpen nagusiez galdetuta, erantzuten dute erabilera handitzeko traba nagusia dendariak edo establezimenduko enpleguak euskaraz ez jakitea dela.
- ✓ Establezimenduetan **euskara erabiltzeari buruz erosketako buruek dituzten iritzi eta jarrerei dagokienez**, oso jarrera positiboa agertzen dute euskara gehiago erabiltzeko

³³ SIADECO (2000). Establezimenduetako bezeroen hizkuntza ohitura eta jarrerei buruzko inkesta, Lasarte-Oria. Lasarte-Oria: Txosten argitaratu gabea.

egin lezaketen ahaleginaren aurreran, gehienei (%70,3) ongi iruditzen baitzaie establezimenduetako enplegatuek bezeroekin euskara gehiago erabiltzea. Beste %24ri ongi iruditzen zaie, betiere "bezero euskaldunekin bakarrik" egiten badute.

- ✓ Lasarte-Oriako erosketako buru ia guztiei (%96) ongi iruditzen zaie establezimenduko idazki, kartel eta bestelako elementu komertzialak bietara jartzea (barrualdean nahiz erakusleihoan).
- ✓ Elementu komertzial horiek euskara hutsez jartzea, berriz, %32ri iruditzen zaie ongi; erdiari baino gehiagori, aldiz, gaizki iruditzen zaie. Gaizki zergatik iruditzen zaien galdetutakoan, "erdaldunek ezin dituztelako ulertu" eta "bi hizkuntzetan jartzea komenigarriagoa" dela erantzuten dute.
- ✓ Erosketak egiteko **establezimenduak aukeratzeko garaian aintzat hartutako alderdiei** dagokienez, "produktuen kalitatea" eta "tratuan atseginak izatea" direla gehien estimatzen dutena, "etxetik gertu egotea" eta "prezioa" ondoren, eta "enpleguak euskaraz jakitea" eta "kartelak euskaraz ere egotea" hirugarrenik. Esan daiteke, beraz, erosketarako establezimenduak hautatzerakoan euskararen inguruko aukerak funtsezkoak ez badira ere, "plus" bat eranstean diotela establezimenduari.
- ✓ Bestetik, erosketako buruen %70entzat, "euskara erabiltzeko ahalegina egiten duten establezimenduak" oso edo nahikoa erakargarriak dira. Euskaraz jakitea eta erabiltzeak, beraz, establezimenduari erakargarritasuna eranstean dio Lasarte-Oriako erosketako arduradunen aburuz.
- ✓ **Merkataritzarekin eta euskararekin loturiko zenbait adierazpenen gaineko iritzien atalari** dagokionez, erosketako buru gehienek uste dute dendarietako oro har euskarari gero eta garrantzi handiagoa ematen diotela. Aldiz, heren bat pasatxok bakarrik uste dute bezeroek ere oro har gero eta garrantzi handiagoa ematen diotela euskarari.
- ✓ Bestetik, erosketako lau arduradunetatik ia hiru ados agertzen dira "ongi ikusten dut komertzioetan euskara gehiago erabiltzeko udalak dendariei laguntzak eskaintzea" esaldiarekin. Datu horiek adierazten dutenez, erosketako buruen oniritzia eta sostengua dute merkataritzaren alorrean euskaraz jakitea eta hitz egitea sustatzeko udaletik bideratzen dituzten ekintzek.
- ✓ Kualitatiboki, merkataritza ere aldaketa handiak jasaten ari den eremua da, eta horietara ere moldatu beharko du euskarak. Aldaketa handi horien artean, nabarmenena eremu handiko zentro komertzialen sorrera da. Zentro horiek, salerosirako zentroak izateaz gain, eragina dute herritarren bestelako ohituretan ere³⁴.

³⁴ USIN ENALES, Sandra (2000). *Los centros comerciales como espacios de consumo de ocio*. In: CD Comunicaciones del 6º Congreso Mundial de Ocio y Desarrollo humano. Bilbao.

- ✓ Horren ondorioz, erabakiguneak gutxiago eta eragingarriagoak dira, eta, beraz, hizkuntzako egoera ere erabakigune gutxi horien baitakoago bihurtzen ari da.
- ✓ Usurbilgo lurretan kokatuta badago ere, Urbil izeneko zentroak aldatu egin du Lasarte-Oriako merkataritzaren egoera eta geroa. Hori dela eta, interesgarria iruditu zaigu merkataritzako zentro horren hizkuntzako datu batzuk hemen biltzea³⁵.

ENPLEGATUAK	Euskaldunak (%)	1a euskaldunak (%)	Erdaldunak (%)
Hipermerkatua	43	25	32
Galeriak	39	32	29

Euskaraz edo bi hizkuntzetan	Ageriko elementuak (%)			Barruko elementuak (%)		
	Errotulua	Ordutegia	Poltsak	Zigilua	Tiketa	Faktura
Hipermerkatua	100	100	0-100	0 - 100	0 - 100	0 - 100
Galeriak	16,7	100	—	—	—	—

E) Irakaskuntza

2000-2001	Errol-datuak (1996)	Lasarte-Orian matrikulatuak		EREDUAK					
		Ikasleak	%	A		B		D	
				Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak	%
HH (2-5 urte)	549	431	78,5	—	0,0	55	12,8	376	87,2
LMH (6-11 urte)	801	478	59,7	—	0,0	204	42,7	274	57,3
DBH (12-15 urte)	632	384	60,8	12	3,1	233	60,7	138	35,9
DBHO (16-17 urte)	353	201	56,9	54	26,9	0	0,0	147	73,1
Guztira (2-17 urte)	2.335	1.494	64,0	66	4,4	492	32,9	935	62,7

³⁵ EMUN Koop.E. (2001). Euskararen azterketa Urbil merkatal zentroko galerietan eta Euskararen azterketa Urbil merkatal zentroko hipermerkatuan. Usurbil: Txosten argitaratu gabeak.

- ✓ 16 urte arteko irakaskuntzan (Haur Hezkuntza eta Derrigorrezko Hezkuntza), hizkuntzako egoerak aldaketa handiak izan ditu azken urteetan, eta eremu hori izan da euskara biziberritzen hasteko tresna nagusia.
- ✓ Ikasle-multzo handi bat, ordea, adin horretako haurren eta gazteen %36, ez dago Lasarte-Oriako ikastetxeetan eskolatua. Ez dugu, beraz, ikasle horien hizkuntzako ikastereduei buruzko informaziorik.
- ✓ 2000-2001 ikasturtean, 16 urtez azpiko 12 gaztetxo bakarrik ari ziren gaztelaniaz ikasten Lasarte-Oriako ikastetxeetan. Gainontzeko %99 B eta D ereduetan ari ziren ikasten. Eredu horiek Lasarte-Orian dituzten ezaugarriak kontuan hartuz, erabat edo gehienbat euskaraz ikasten ari dira ia ikasle guztiak.
- ✓ 16 eta 18 urteko gazteen artean, berriz (ez dute nahitaez eskolatuak egon beharrik), %27 ari da gaztelaniaz ikasten. Gaztelaniaz ikasten ari diren gehienak heziketako zikloak egitean ari dira. Guztira, ordea, gehienak batxilergoa egiten ari dira, eta, horien artean, berriz, gehienak (%80) euskaraz ikasten ari dira.
- ✓ Kualitatiboki, irakaskuntza izan da euskaraz azken urteetan Lasarte-Orian izan duen biziberritzearen eragile nagusia. Esan dezakegu ez dagoela euskaraz batere ez dakien ikaslerik.
- ✓ Zenbakiak euskararen aldera erabat irauli badira ere, zenbaki horien atzean dagoen egoerak ñabardura asko ditu. Izan ere, B eta D ikastereduetan ikasten ari diren ikasleen euskarazko gaitasuna ez da batere homogeneoa.
- ✓ 16 urtera iristen diren ikasle askok (batez ere, B ereduan ikasitakoen artean), nahiz eta ikasketak euskaraz jasotzen jarraitzeko gaitasuna lortu³⁶, ez dute euskaraz eremu guztietan eta erregistro guztietan zuzen eta egoki aritzeko adinako gaitasunik lortzen. Horren erantzule bakarra ez da ikastetxea (8 urteko haur batek eskolak hartzen gelan pasatzen dituen orduak urte osoko esnaorduen %15 dira gutxi gorabehera...³⁷), baina legez ere bete beharreko helburu hori lortu gabe geratzen da kasu askotan.
- ✓ Ikasle horiek dituzten gabeziak ez dira jakite-mailakoak soilik, erabilerazkoak eta motibaziozkoak ere badira.
- ✓ Ikasle gehienek idatzizko trebetasunak landuagoak dituzte ahozkoak baino.
- ✓ Ikasle gutxiago dira, lehen hizkuntza euskara duten askoren artean ere, euskarazko jakite-maila gaztelaniazkoaren parekoa edo jasoagoa dutenak alderantziz dutenak baino.

³⁶ ITURRIZA Marga eta beste (1992, 1994). *OHOKO "B" eredua, ertainetan? (I eta II)*. Lasarte-Oria: Udala.

³⁷ EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. (1991). *Eskola hiztun bila*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

- ✓ Helduen Heziketa Iraunkorra, berriz, erabat gaztelaniaz eskaintzen da Lasarte-Orian. Euskararen eskaintza euskara bera ikasteko modulu batzuetara mugatzen da, eta aukerakoak dira ikasleentzat.
- ✓ Gainerako heziketako eskaintza (Lanbide hastapeneko tailerrak, akademia asko...) ia erabat gaztelaniaz da.

F) Komunikabideak

- ✓ **Lasarte-Oriako informazioa jasotzen duen komunikabide** nagusia *El Diario Vasco* egunkariko herriko kronika da (egunkariren bat irakurtzen duten lasartearren %81 ek irakurtzen dute³⁸), eta gaztelaniaz da. Datu ofizialik ez badugu ere, 2.000 ale inguru saltzen ditu egunero. Euskaraz argitaratzen den informazioak hartzen duen tokia nahiko sinbolikoa da, eta, gehienetan, euskarari buruzko gauzez aritzeko izaten da.
- ✓ Idatzizko bigarren komunikabidea *Txintxarri* astekaria da, euskarak Lasarte-Orian duen oinarri sendoenetakoa. Astero, 24 orrialde argitaratzen ditu, euskaraz. 4.500 ale inguruko tirada du, eta 7.000 irakurle inguru. Lasarte-Oriako biztanleen %63k ezagutzen dute aldizkari hori.
- ✓ Badira Lasarte-Orian bi horietaz gain argitaratzen diren beste hainbat argitalpen ere (*Lasarte-Oria* aldizkaria –%40k ezagutzen dute, eta gehienbat gaztelaniaz da–, *Irakutrezin* gazteentzako aldizkaria –euskaraz–, *Orrigorri* hilabetekaria –bi hizkuntzetan–, KIUBen aldizkaria –bi hizkuntzetan–...), baina haien eragina murriztagoa da askoz.
- ✓ Horrez gainera, Lasarte-Oriari buruz bakarrik aritzen ez bada ere (Donostialde osorako da), *Radio Bahía* irratia ere Lasarte-Oriari buruzko informazioa ematen duen komunikabideen artean sar genezake (egoitza ere Lasarte-Orian du), eta gaztelaniaz betetzen ditu emisio-ordu guztiak.
- ✓ **Lasarte-Oriari buruzko informazioa jasotzen ez duten komunikabideen artean (udalerriaz gaindiko informazioa duten komunikabideak)**, lasartearrek euskaraz jasotzen dutena gutxiago da, askoz. Euskarazko komunikabide nagusiak Euskaldunon Egunkaria, ETB-1, Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea irratia dira. Baina ez dira horiek, ezta hurrik eman ere, lasartearrek gehien kontsumitzen dituzten komunikabideak. Alderantziz, komunikabide handi horiek (*Diario Vasco*, *Gara*, *El Mundo*, *El País*... egunkariak; *Radio Euskadi*, *Herri Irratia*, *La Ser*, *La Cope*... irratiek; eta ETB-2, TVE-1, TVE-2, Antena 3, Tele 5, Canal +... telebistek) betetzen dituzte gero eta gehiago (kopuru zehatzik ez

³⁸ HERNANDEZ, Jone Miren (1996). *Txintxarri aldizkariaren gizarte-eraginaren azterketa*. Lasarte-Oria: Udala. Txosten argitaratu gabea.

badakigu ere) lasartearren eguneroko orduak, eta, guztiak kontuan hatuta, gero eta txikiagoa da euskararen ehunekoa.

- ✓ Kualitatiboki, komunikabideak bihurtu dira egungo pertsonen eguneroko bizimodua gehien aldatu duten elementuak. Egutero, batez beste, 4 edo 5 orduz ikusten omen dugu telebista, eta beraz, gure eguneroko esna-orduen herena inguru eman ohi dugu komunikabideen jiran (entzuten, irakurtzen eta begiratzen). Horren guztiaren ondorioz, gutxituz joan da gainerako eremuek (familia, lana, lagunak...) gure bizitzan (eta gure hizkuntzazko errealitatean) duten garrantzia, eta komunikabideak ari dira bihurtzen hizkuntzen erreproduktzioarako mekanismo nagusi.
- ✓ Sakontasun handiegietan sartu gabe ere, erraz ikus daiteke ezen, teknologia berrien eraginez (digitalizazioa, sateliteak, Internet...), hedadura handiko komunikabideak izugarriko abiadura ari direla ugaltzen, eta horrela jarraituko dutela. Are gehiago, telebistaren kasuan bezala, gaikako kanal asko sortuko dira, eta aurreikus daitekeena da pertsona bakoitzak aukeratuko duela, azkenean, zer nahi duen ikusgai izan (menu pertsonalizatuaren bidez...). Esan gabe doa, esparru berri horretan inguruko euskara ez beste hizkuntza horiek izango dira nagusi.
- ✓ Euskararen normalizazioarako mehatxu izan daitezkeen bide berri horiek, ordea, aukera berri ere gerta daitezke, baldin eta horrela izan daitezkeen ahalegintzen bagara. Hau da, hedadura handiko komunikabideen ugaritzeak begi-bistan uzten du norberaren ingurune hurbileko (auzoko, herriko, eskualdeko...) informazioaren hutsunea, eta gertuko informazio-esparru hori izan daiteke euskarak irabaz dezakeen esparrua, dela hizkuntzaren normalizazioari lehentasunez egokitzen zaiolako, dela baliabide teknologiko eta ekonomikoek faktible egiten dutelako.

G) Administrazioa

- ✓ Euskararen **erabilerrari** dagokionez, Lasarte-Oriako Udalean euskara eta gaztelania erabiltzen badira ere, gaztelania askoz usuago erabiltzen da.
- ✓ Erabilera hori, zerbitzu-hizkuntzan eta lan-hizkuntzan bana dezakegu. Lan-hizkuntzari dagokionez (enplegatuek eta zinegotziek lana zein hizkuntzetan egiten duten), gaztelaniaz lan egiten da gehienetan, ahoz nahiz, batez ere, idatziz.
- ✓ Zerbitzu-hizkuntzari dagokionez (zerbitzuak zein hizkuntzetan eskaintzen diren, alegia), egoera orekatuxeagoa da, baina lan-hizkuntzaren errealitateak pisu handia du zerbitzuak beti bi hizkuntzetan izatera ez iristeko:
 - Herritarrei harrera egitean (ahoz), ia beti herritarrek berak du aukeran zein hizkuntzatan egin nahi duen; idatzizko harreman sinpleak, berriz (eskaerei erantzutea, zergetarako oharrak...), bi hizkuntzetan egiten dira ia beti.

- Herritarrarentzako zerbitzuak (ahoz) eskaintzean, berriz, (ikastaroak, hitzaldiak, laguntza sozialeko zerbitzuak...) gaztelaniaz egiten dira oro har (haurrei zuzenduak izan ezik), eta idatzizko espedienteak, hain sinpleak ez direnean (obretako baimenak...), gaztelaniaz bakarrik egiten dira gehienetan.

- ✓ Lasarte-Oriako Udala osatzen duten enplegatuen eta zinegotzien **hizkuntzako gaitasunaz** den bezainbatean, zinegotzien %47 eta enplegatu finkoen %82 inguru elebidunak dira (nahiz eta euskararen jakite-maila oso dibertsoa izan). Enplegatuei eta betetzen dituzten lanpostuen hizkuntza-eskakizunei dagokienez, datuak laburtzen dituen taula doa segidan:³⁹

LANPOSTUAK	KOPURUA	%
Lanpostuen kopurua	102	%100
Derrigortasun-data badutenak	58	%56,9
Derrigortasun-datarik ez dutenak	44	%43,1
Derrigortasun-data baduten lanpostuak	58	%100
Egiaztatuta dutenak	39	%67,2
Egiaztatu gabekoak	11	%19
Lanpostu hutsak	7	%12,1
Salbuetsita daudenak (adinagatik)	1	%1,7
Derrigortasun-datarik ez duten lanpostuak	44	%100
Egiaztatu dutenak	3	%6,8
Egiaztatu gabekoak	29	%65,9
Lanpostu hutsak	2	%4,5
Euskararen alorrekoak	10	%22,7

- ✓ Indarrean dauden legezko xedapenei jarraikiz, Udaleko lanpostu batzuek (44 lanpostuk) nahitaezkoa dute hizkuntzako profil bat betetzea, eta beste batzuek ez (58 lanpostuk). Derrigorrezkoa duten lanpostuen artean, %19 dira oraindik bete gabe dutenak. Derrigortasuna izan edo ez izan, 52 langile dira (%51) lanpostuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenak. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe duten beste 30 langile inguru dira elebidunak, guztira %82 hori osatuz.
- ✓ Udalak, 2001. urtean, bi erabaki garrantzitsu hartu ditu, euskararen erabilera Udalean bertan sustatzeari buruzkoak eta Udalak bere burua euskalduntzeko zer egiten duen eta zer egin nahi duen jasotzen dutenak.

³⁹ LASARTE-ORIAKO UDALA. (2001). *Lasarte-Oriako Udalean Euskara Erabiltzeko Plana*. Lasarte-Oria. Udala.

- ✓ Lehenbizikoa, "Lasarte-Oriako Udalean Euskara Erabiltzeko Plana", alderdi politiko guztien adostasunez onetsia. Eusko Jaurlaritzak indarrean dauzkan xedapenei jarraikiz onetsi da plan hori, eta Kiroldetgia, Kulturetxea eta Diruzaintza zerbitzuak ditu jomuga, horietan euskara ere laneko eta zerbitzuko hizkuntza izan dadin. Zerbitzu horietan lanean diharduten 23 langileez gain, jendaurreko lanetan diharduten beste 7 enplegatu gaitzea du helburu, beren zereginak, ahal den neurrian, euskaraz ere egin ditzaten.
- ✓ Bigarrena, "Lasarte-Oriako herrian eta udalean euskararen erabilera normalizatzeko araei buruzko udal-ordenantza" da. Ordenantza hori udalbatzarraren osoko bilkurak onetsi zuen 2001eko urriaren 31n. Ordenantza horrek ez du alderdi politikoen arteko adostasunik lortu, eta herriko ikastetxeen eta euskararen sustapenean diharduten elkarten kritikak jaso ditu. Edozein kasutan, ordenantza horrek euskararen egoera, bai udaletxeko barne funtzionamenduan bai udalerrian, hobetzeko hainbat arau jasotzen ditu eta horiek errealitate bihurtzea izango du eginkizun nagusi Lasarte-Oriako Udalak.
- ✓ Udalez gain, administrazioa dira (nahiz udaleko administrazioa ez izan), Bakezko Epaitegia, Osasuneko Zentroa eta Postetxea.

Bakezko Epaitegian ahozko harremanak euskaraz ere egin daitezke; idatzizkoak, berriz, batzuk (arduraduna ia euskalduna da eta 4 langile finkoetatik 1 da euskalduna, 2 dira ia euskaldunak eta beste 1 da erdalduna).

Osasuneko Zentroan, aukera horiek murriztuagoak daude: arduraduna erdalduna da; medikuen artean, 5 dira euskaldunak, 1 ia euskalduna eta 5 erdaldunak; langile finkoen artean, berriz, 8 dira euskaldunak, 1 ia euskalduna eta beste 6 erdaldunak.

Postetxean, berriz, aukera horiek salbuespenak dira: arduraduna erdalduna da eta, 11 langile finkoetatik, 2 dira euskaldunak eta 9 erdaldunak. Hiru erakunde horien kasuan, lan-hizkuntza, salbuespen gutxi batzuk salbu, gaztelania da.

H) Lan-arloa

- ✓ Orain arte aipatutako eremu guztiez gain, lasartearren herenek inguruk (16 urtez gorako biztanleen erdiek pasatxok) lan egiten dute. Lan hori zein hizkuntzatan egiten duten datu zehatzik ez badugu ere, esan dezakegu, erratzeko beldur handirik gabe, Lasarte-Orian ia erabat gaztelaniaz dela.
- ✓ Daturik ez izan arren, oso gogoan izan behar dugu eremu horrek gure hizkuntzako errealitatean duen pisuan. Kuantitatiboki, batez beste, astean 5 egunez eta, egun horietako esnaorduen erditan aritzen gara lanean. Kualitatiboki, berriz, gainontzeko eremuetan normal bizi ahal izateko diruzko baliakizunen iturria izan ohi da.

- ✓ Nekazaritzako sektorean, ahozko harreman gehienak euskaraz direla uste dugu (ez idatzizkoak); zerbitzuen sektorean, berriz, gaztelaniaz dira ahozko zein idatzizko harreman gehienak (zerbitzuen atalean eman ditugu merkataritzako datuak, baina, zerbitzuak osorik hartuta, nahiz eta lan-arloko sektoreen artean euskarak egoera onena duen sektorea izan zerbitzuena, euskararen erabilera askoz murriztagoa dela uste dugu); eta eraikuntzaren eta industriaren sektoreetan, azkenik, oraindik ere euskararen erabilera ahozko harreman gutxi batzuetara mugatzen dela pentsatzen dugu.

9.- Ondorio nagusiak

- Lasarte-Orian, euskara galera-prozesu batean murgilduta egon da; bereziki, XIX. mendearen erdi aldetik 1975. urte aldera arte.
- Galera-prozesu horren eragile nagusiak soziopolitikoak (euskarak izandako jazarpena) eta sozioekonomikoak (immigrazio handia) izan dira.
- Galera-prozesu horren ondorioz, euskarak balioa galdu du (erabiltzeko eremuak galdu ditu: administrazioa, irakaskuntza, lan-arloa, komunikabideak...) eta, horren kausaz, hiztunak ere galdu ditu (bai kualitatiboki –euskaldun alfabetaturik ia ezin izan baita osatu urte horietan zehar–, bai kuantitaboki –familia euskaldunetan ere euskaraz hitz egiteari utzi zaiolako askotan, eta jatorriz euskara ez zekien kolektiboak, oro har, ez duelako euskara ikasi beharrik izan–).
- Beraz, galera-prozesuaren eraginez euskara egoera kaskarrean egon den unean, 1960-1975 urteen artean, euskara zekitenak asko gutxitu ziren (%20z azpitik izatera iritsiz), ez ziren euskaraz alfabetatuak, eta euskara, erabiltzen zutenean, oso egoera eta eremu murriztuetan erabiltzen zuten (egoera informal batzuetan, eta ahoz bakarrik).
- Euskara, ordea, Lasarte-Orian biziberritzen ere urte tarte horretan hasi zen. Biziberritzearen inflexio-puntua Landaberri ikastolaren sorreran ezar dezakegu; bai euskararentzat eremu bat (irakaskuntza) irabazten hasi zelako, bai hiztun osatuak (alfabetatuak) sortzen hasi zelako ere. Geroztik, ekimen eta urrats (publiko zein pribatu) asko eta onak izan dira. Horrez gain, gaztelaniarekin batera euskara ere hizkuntza ofizial bihurtu izana (1978) eta horrek ondorioztatutako guztia izan da eragile nagusia.
- Liburuan zehar azaldu ditugun galerako eta berreskurapeneko prozesu horien ondorioz, askoz hobea da XX. mendearen amaieran euskarak Lasarte-Orian duen osasun-maila 1975ean zuena baino, bai eremu gehiagotan erabiltzen delako (familia euskaldunetan, transmititzen da euskara belaunez belaun, irakaskuntza euskaraz egiten dute haur eta gaztetxo gehienek, horiek ere aisiako ekintza gehienak euskaraz dituzte, bada euskarazko komunikabiderik Lasarte-Orian...), bai hiztun gehiago dituelako ere.
- Hala ere, oraindik oso handia da erdaldun elebakarren kopurua zein ehunekoa. Horrek, noski, galga handia jartzen dio funtzioak berreskuratzeari; hau da, euskaraz arituko diren eremuak eta hiztun-taldeak bideratzeari.
- Euskara Lasarte-Orian hizkuntza normalizatu izan dadin, ordea, erabiltzeko eremuak eta hiztunak irabazten eta hobetzen jarraitu behar du.
- Erabilerako eremuei dagokienez, orain arte oinarritzekoak izan diren eremuez gain (familia, irakaskuntza, aisia...), zorrotz erreparatu behar diegu unean-unean gizartea osatzen

duten eremuei eta horien garrantziari, eta, horietan ere (lan-arloa, komunikabideak...), euskara normal erabiltzera iritsi behar dugu.

- Hitzunei dagokionez, berriz, euskaldunak (elebidunak guztiak) gehiago gara, baina gehitze horrek ondorioak izan ditu hiztunen kalitatean, bai oro har, bai Lasarte-Oriako hizkerari dagokionez ere⁴⁰.

- Euskara galera-prozesuan egon den urteetan, euskaldunak familia bidez sortutakoak bakarrik izan dira.

Belaunaldi horiek, eguneroko bizimoduko eremu informal asko euskaraz (ahoz) bizi izan dituzte, eta, euskaraz alfabetatu gabeak izan badira ere (gaztelaniaz eskolatzera derrigortuak izan zirelako), oro har, euskaraz hitz egiteko gaitasun eta bizitasun komunikatibo aberatsa izan dute (tartean, euskara galdu eta kamustutako jatorrizko euskaldun dezente izan bada ere).

- Euskara Lasarte-Orian biziberritzen aritu den azken 35 urte horietan, ordea, euskaldun izatearen hizkuntzako definizioa eta ezaugarriak aldatu egin dira.

Lehen buruan, euskara etxeko hizkuntza izatera iritsi da, oro har, familia euskaldunetan. Horren ondorioz, jatorrizko hiztunak berreskuratzen hasi dira, eta, horietatik gehienak, euskaraz eskolatu direnez gero, euskaldun osoak izatera iritsi dira (aurreko belaunaldietan ia topatu ezin daitekeen hizkuntzako tipologia). Hain zuzen, euskarak, biziko bada, tipologia hori du (euskaldun osoa) ugaritasun nahikoarekin beharrezkoa duena; bizitzako edozein zeregin eta eremutan euskaraz normal aritzeko gaitasuna duten hiztunak, alegia.

Bigarrenik, euskara hiztunak irabazten hasi da. Ordea, hizkuntza normalizatuta ez dagoenean (eremu gehientsuenetan hizkuntza normal erabiltzen ez denean) irabazten badira hiztunak (ezinbesteko urratsa, bestalde, hizkuntza normalizatuz joateko), normala da hiztun horietako asko hiztun osoak ez izatea, edo jatorrizko euskaldun eskolatuak euskaraz aritzeko duten adinako gaitasunik ez izatea.

Horren guztiaren ondorioa da Lasarte-Orian 1996. urtean zeuden euskaldunak 1975ean zeuden euskaldunak baino gehiago izatea (%20 izatetik %35era izatera) eta bestelakoak izatea (%100 euskaldun zaharrak eta gehienbat alfabetatu gabeak izatetik, %25 bederen euskaldun berriak eta gehienbat alfabetatuak izatera, ñabardurak nabardura).

- Euskaldunak gehiago eta bestelakoak badira ere, euskaraz gehiago ala gutxiago eta hobeto ala okerrago egiten dute? Galdera horri erantzuteko datu zehatzik ez badugu ere, badakigu zein diren euskara erabiltzeko (edo ez erabiltzeko) gehien eragiten duten faktoreak⁴¹. Faktore hauek eta hurrenkera honetan eragiten dute:

⁴⁰ BEREZIARTUA Juan Ignazio eta beste (1996). *Lasarte-Oriako euskararen azterketa*. Lasarte-Oria: Udala.

⁴¹ EUSKO JAURLARITZA. HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILORDETZA (1995). *Euskararen jarraipena*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

1.- Norberaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea. Zenbat eta gehiagok euskaraz jakin norberaren harreman-sarean –esate baterako, familian, lagunartean edo lanean–, orduan eta handiagoa da euskararen erabilera. Nolanahi ere, bada gutxieneko edo atalaseko maila bat, euskaraz hitz egiteko ez baita aski solaskideen "erdiek" edo "erdiek baino gehiagok" euskaraz jakitea: beharrezkoa da "denek edo ia denek" euskaraz jakitea.

2.- Norberak euskaraz eta erdaraz hitz egiteko duen erraztasuna. Euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten dutenek erdaraz errazago mintzo direnek baino askoz ere gehiago egiten dute euskaraz.

3.- Norbera bizi den herriko euskaldunen dentsitatea edo gune soziolinguistikoa. Zenbat eta handiagoa izan norbera bizi den herriko euskaldunen dentsitatea, orduan eta handiagoa da norberaren euskararen erabilera. Gune soziolinguistikoa eta euskararen bizitasun etnolinguistikoa elkarri hertsiki loturik daude. Demografiaren, politikaren, ekonomiaren eta kulturaren ikuspegitik, euskarak gune soziolinguistiko bakoitzean duen indarra oso ezberdina da.

4.- Euskararekiko interesa eta jarrera. Zenbat eta aldekoagoa izan euskararekiko jarrera, orduan eta handiagoa da euskararen erabilera.

5.- Euskarazko irrtiaren eta telebistaren emanaldiak entzutea edota ikustea. Euskarazko irratia edo telebista gehien entzuten edo ikusten dutenek hitz egiten dute gehien euskaraz.

6.- Adina. Oro har, zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta gehixeago egiten da euskaraz.

● Lasarte-Oriaren kasuan, lehenengo eta hirugarren faktoreei dagokienez, euskaldunen dentsitatearekin lotuta baitaude eta arrazoi estrukturalak baitira, gertatzen dena da, batetik, elebiduntzen ari den multzoaren (batez ere familia erdaldun eta mistoetako haurren eta gazteen) gertuko harreman-sareek (batez ere familiak eta, gutxiago, lagunarteak) nagusiki erdaldunak izaten jarraitzen dutela oraindik, eta, bestetik, gune soziolinguistikoa ere (herria) oso erdaldundua dagoela oraindik (erdaldun elebakarrak gehiengoaren diren heinean).

Maila pertsonaleko arrazoiari –hizkuntzak hitz egiteko erraztasunari– dagokionez, berriz, gogoan izan behar da *elebidun orekatuak* (bi hizkuntzetan erraztasun berarekin hitz egiten dutenak) eta *euskal elebidunak* (euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten dutenak) izatera heltzen diren ia guztiak euskara familia bidez jasotakoak direla. Lasarte-Oriaren kasuan, gertatzen ari dena da elebidun berri gehienak (eskola bidez euskaldundutakoak) ez direla *elebidun orekatuak* eta *euskal elebidunak* izatera iristen. Beraz, erdaraz euskaraz baino errazago egiten dute, eta, ondorioz, euskaldunen dentsitateak ere laguntzen ez dien heinean, erdaraz egiten dute gehienetan.

● Horren guztiaren ondorioz, segurutzat joz *euskal elebidun* gehienek (gehienak euskara familian jaso dutenak) euskara hurrengo belaunaldiari familian eta ongi transmitituko dietela, datozen urteetarako galdera nagusietako bat hau dela uste dugu⁴²:

Euskara seme-alabei familia bidez transmitituko ote diete euskara ama-hizkuntza izan ez duten eta irakaskuntza bidez elebidundutakoek (*elebidun orekatu*, *erdal elebidun* eta *elebidun hartzaille* gehienek)?

- Erantzuna baiezkoa bada, euskaldunen elebitasun-mota asko hobetuko da (*elebidun orekatu* eta *euskal elebidun* gehiago eta hobeak osatuko dira), eta, ondorioz (harreman-sareak eta gune soziolinguistikoa euskaldunduz badoaz), erabileran aurrerakada nabarmenak ikusi ahalko ditugu (euskaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa izango dutelako eta, beraz, gehiago egingo dutelako, seguru asko).
- Erantzuna ezezkoa bada, elebitasun-motak lehengoan jarraituko du, oro har (euskara gehienbat eskola bidez jasoz), eta zail izango da hoberako aldaketarik nabarmentzea.
- Erantzuna, noski, ez dago aldeztatik erabakita, eta oso erabakigarria izango da belaunaldi horiek, hizkuntza belaunaldi berriei transmititzera iritsi aurretik, zer esperientzia izango dituzten eta izaten ari diren hizkuntzarekin, irakaskuntzaz kanpo nahiz barruan (aisialdia, lana, administrazioa, komunikabideak...), baina ardurako test bat izango da ea hurrengo belaunaldian euskarak ama-hizkuntza gisara gora egiten duen ala ez.

● Beraz, euskarak hitzun gehiago eta hobeak lortu behar ditu Lasarte-Orian, eta, horretarako, hizkuntza ondorengoetartzeko sistemek ahalik eta ondoen funtzionatzeaz gain (familia bidezko transmisioak, irakaskuntza bidezko transmisioak eta helduen euskalduntzeak eta alfabetatzeak), euskararen erabilera zabaldu beharra dago gizartea osatzen duten eremuetan (aisia, komunikabideak, lana...).

Bestela, euskara erabiltzeko eremuak zabaltzen ez badira, ezinezkoa dateke *elebidun orekatuak* eta *euskal elebidunak* osatzea, eta, ondorioz, horiek osatzen ez badira, euskaldun horiek ezingo dira euskaraz normaltasunez aritu eremu horietan. Beste hitz batzuekin adierazita, euskararen hedapen demografikoaz gain (gero eta elebidun gehiago eta hobeak lortzea), eremuz eremuko hedapena edo hedapen funtzionala da euskarak datozen urteetan duen erronka nagusietakoa.

⁴² ARRUTI, Iñaki (1997): Euskararen familia bidezko jarraipena. In BAT, 22-23 zk. 69-110 orr.

10.- Berreskuratzeko prozesua eta behar dituen baldintzak

"Zertzelada historikoak" atalean azaldu dugu, modu sinplifikatu batean bada ere, euskarak zenbat hitzun eta funtzio galdu dituen historian zehar Lasarte-Orian, eta nola eta zerk eraginda gertatu den galera hori.

Liburu honen helburu nagusia, ordea, lehengo denboretan gertatutakotik ikasteaz gain, euskarak egun duen egoera islatzea da. Isla horrek, hain zuzen, egoera hobetzen jarraitzeko lagungarri izatea du helmuga. Hala nahi luke behintzat.

Iragana kontatzea erraza ez bada ere, etorkizuna aurreikustea⁴³ are zailgoa da. Hala ere, lizentzia hori hartu dut, orain etorkizun duguna iragana bihurtzen denean, norbaitek gauza hobeak konta ditzan.

A) Euskararen erabilera normalizatu behar da? Zergatik?

Liburuaren sarreran genion bezala, hizkuntzen fenomenoak eta egoerak esplikatzeaz gain, hizkuntzekin zer egin nahi dugun jakitea izan daiteke lehenbiziko urratsa. Izan ere, hizkuntzak, kode-multzo bat ez ezik, berebat dira bizi garen mundu honek duen aberastasun ikaragarri bat. Aberastasun horrek bizirik irautea pertsona guztientzat, hizkuntza guztientzat eta munduarentzat berarentzat ere onuragarria delako ustekoa naiz.

Hizkuntzen ekologiaren ikuspegi horretatik, nago hizkuntzen aberastasuna eta hizkuntzen eta hitzun-komunitateen arteko oreka lortzeko modua dela hitzun-komunitate bakoitzak bere hizkuntza erabiltzea, komunitateak hala nahi badu behintzat, bere esparruan, bere zeregin gehientsuenetarako.

Horregatik iruditzen zait euskararen erabilera normalizatu behar dugula Lasarte-Orian; euskara berreskuratzea euskara galtzea baino askoz hobea delako guztiontzat.

⁴³ MARTINEZ DE LUNA, Iñaki eta beste (2000). *Etorkizuna aurreikusten 99. Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Iñaki Martínez de Luna.

B) Zer da euskararen erabilera normalizatzea?

Euskararen normalizazioak (labur-labur adierazita) euskara demografikoki, funtzionalki eta geografikoki normaltzea esan nahi du. Hau da, Lasarte-Oriako biztanle guztiek euskaraz jakitea eta hitz egitea, euskara funtzio edo eremu guztietan (administrazioa, komunikabideak, lagunartea, familia...) erabiltzea eta herriko toki guztietan (auzoetan, lantegietan...) erabiltzea esan nahi du.

C) Zer egin behar da horretarako?

Horretarako, egun dugun egoeratik abiatuta (azaldu dugun egoera demografikotik, funtzionaltetik eta geografikotik), hau da, egoeraren diagnosiak emandako informazioa eta hizkuntzak dituen beharrianak abiapuntu izanik (eta ez interes partikularrak edota partidistak), **Plan Estrategikoa** egin behar da (hirigintzako planak edo ingurumenekoak egin ohi diren bezala).

Plan horrek, besteak beste, hedapen demografikoa (pertsonek: ahalik eta elebidun gehien eta ahalik eta hizkuntzazko gaitasun onenekoak lortzea), hedapen funtzionala (eremuak: ahalik eta gizarteko eremu gehienetarako hizkuntza izatea) eta hedapen geografikoa (tokiak: herriko ahalik eta auzo, lantegi, kale... gehienetan erabilia izatea) nola gauzatu behar diren jaso beharko luke (lehentasunak, egitarauak, bitartekoak...).

Kontziente gara, noski, udalerrri bateko hizkuntzaren egoera ez dagoela soilik –eta, agian, batez ere– udalerrri batean egiten denaren edo egiten ez denaren baitan. Alegia, Lasarte-Oriako euskarak izango duen bilakaera hertsiki lotua egongo dela Euskal Herrian, oro har, euskarak izango duenarekin (orain artean izan den bezala). Eta ez hori bakarrik; badirela, halaber, beste hainbat faktore (globalizazioa, teknologia berriak, imigrazioa...), oso erabakigarriak izango direnak eta udalerrri-mailako plan baten edukiak erabat indargabe ditzaketenak.

Horretaz aritzea, ordea, nahiz eta beti presente eduki beharrekoa izan, liburu honen helburu eta neurrietatik kanpo geratzen dela uste dugu, eta horrexegatik utzi dugu alde batera.

Aipatutako udalerrri-mailako plan hori era askotara egin daiteke, eta hainbat izen ere jar dakizkioke⁴⁴. Adibidetzat hartuz Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean onetsitako

⁴⁴ Lasarte-Oriako Udaleko Euskarako Zerbitzuak ere hainbat urtetan izenburu horren pean koka genezakeen plana eta plan hori gauzatzeko metodologia garatu ditu. Bestalde, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua ere gai hori lantzen ari da.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian⁴⁵ jasotako eredia, Euskadiko Komunitate Autonomoko Udaletan zabaltzeko helburua duena, hauek izan daitezke (hala iritziz eta erabakiz gero) Lasarte-Orian ere plan horrek izan ditzakeen helburuak.

Helburu nagusia:

"Funtzio soziolinguistikoetan aurrerapauso handiak eman diren arren, euskararen egoera beste hizkuntza gutxituen eta gutxiagora etorri direnen antzekoa da oraindik: hainbat gizarte-esparrutan oso ahula da duen presentzia; gehien aurreratu duen eremuetan ere, egoera ez da inola ere erdaren parekoa. Hala ere, gogoan dugu hizkuntzen berdintasunaren diskurtsoak antzu bihur lezakeela hizkuntza gutxituen aldeko ahalegina: egunerokotasuna irabazita ez dagoenean, arriskutsua izan daiteke lehentasun garbirik finkatu gabe aldi berean eta esparru guztietara hedatu nahi izatea. Horrexegatik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea. Hizkuntza-komunitatearen eskubide kolektiboa ukatu gabe, herritar bakoitzaren hizkuntza-eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezen lortzeko urratsak areagotzea, jakinik botere publikoek eskubide hauek babesten dituztela; euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea, horrela bakarrik bermatuko baita euskararen biziraupena eta normalizazioa".

Helburu estrategikoak:

1.- Euskara ondorengoetaratzea

Euskara, belaunez belaun eta etenik gabe, ondorengoetaratzea. Euskararen geroratzea, familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz lortzen da, batez ere.

2.- Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza

Erabiliz zorrozten den tresna da hizkuntza. Erabiltzen ez bada, herdoildu ez ezik, kamustu ere egiten baita. Horregatik zaindu behar dira ondo familiaren eta eskolaren luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak: kirola, aisia, erlijioa, gune euskaldunenak, enpresa-mundua, administrazioa eta abar. Datozen hamar urteotako erronkarik nagusia belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza; esaterako, enpresa-mundurako, aisiarako, kirolerako eta komunikabideetako produktuen kontsumorako, bai eta funtzio sinboliko eta afektiboetarako ere, hala nola, familiako harremanetarako, lagunarterako, gizarteko bizitzarako, kulturarako, eta norberaren burua euskal hiritar jartzeko. Horretarako,

⁴⁵ EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA.(1999). *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. 1999. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

euskarazko zerbitzuen «eskaintza» eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu garrantzizkoetara zabaldu behar da. Euskararen aldeko auzogintza, zerbitzugintza da, hurrengo hamar urteotan, bai herri-aginteei bai euskaraen aldeko taldeek egin beharreko ahalegin garrantzitsuena: euskarak bizi-indar osoa edo ohargarria duen bizi-inguru hurbiletan osasun-, hezkuntza-, kirol-, aisia- eta abarreko zerbitzuak euskaraz edo elebidun eskaintzea.

3.- Euskararen elikadura

Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, liburu, irati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez. Euskara, bigarren hizkuntza gisa, eskolan ikasi duen euskaldun berriari dituen hizkuntza-ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen lagundu behar zaio.

Helburu horiek lortzeko, hainbat neurri eta programa garatu beharko lirateke. Neurri horiek eremuz eremukoak izan beharko lukete. Adibidetzat, hauek dira Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian jasotzen diren eremuak:

1.- Euskara ondorengoetaratzea

- Familia bidezko jarraipena.
- Irakaskuntza.
- Euskalduntze-alfabetatzea.

2.- Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza

- Administrazioa.
- Gune euskaldunenak (Lasarte-Oria ez dago horien barruan).
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak.
- Enpresa-mundua.
- Aisia.
- Kirola.
- Erljioa.

3.- Euskararen elikadura

- Corpusaren plangintza eta euskararen kalitatea.
- Prentsa idatzia.
- Liburugintza.
- Irratia.
- Telebista.
- Publizitatea.
- Kulturagintza.

D) Nola egin behar da?

Sarreran esan dugu, hizkuntza bat gizarte batean normalizatuta dagoenean, gizarte horretako pertsonak (hiztun-komunitateak) hizkuntza hori erabili egiten dutela beren zeregin guztietarako (gehienetarako behintzat). Erabiltzen dutelako dakite hizkuntza hori, eta dakiten hizkuntza horrek gauzak egiteko (normal bizitzeko) balio dietelako maite dute⁴⁶. Beraz:

Erabil → Jakin → Maite

Hizkuntza bat gizarte batean normalizatuta ez dagoenean, ordea, prozesu horrek ez du modu horretara nahikoa indarrekin funtzionatzen (hizkuntzaren egoeraren arabera indarra izan ohi du hizkuntzen bizitzaren ibilbide natural horrek).

Beraz, prozesu natural hori indartzeaz gain, prozesu kultural bat ere martxan jarri eta elikatu behar da hiztun-komunitate horretan (eta, euskararen kasuan, jarrita ere badago).

Maite / Behar → Ikasi → Erabili

Alegia, hizkuntzak ez dira berez normalizatzen, eta, beraz, planifikatu egin behar da biziberritze hori. Eta, planifikatzeko lan horretan, bada oinarrizko abiapuntu bat: hizkuntza bat normalizatzeke ezinbestekoa da hiztun-komunitate hori osatzen duten pertsonak hizkuntza hori normalizatu **nahi izatea**.

Beste hitz batzuekin adieraztearren, nahiz eta legerik onenak eta baliabiderik egokienak eskueran izan, edozein naziotako hizkuntza ezingo dela normalizatu baldin eta hango herritarrek hizkuntza hori normalizatzerik nahi ez badute.

Beraz, nahi izatea da euskara biziberritzeko lehen baldintza.

Baina nahi izate hori, maila pertsonalean ez ezik, maila kolektiboan hezurmamitu behar da. Hizkuntza, komunikazio-mekanismoa ez ezik, herri-izaeraren adierazgarria da, eta, beraz, adierazgarri hori gaixo dagoenean, herriak berak du hori sendatzeko erantzukizuna.⁴⁷

Herritarrek berek nahia eta erantzukizuna izan behar badute ere, egoera normalizatuetan (demokrazian) bizi diren herriek beren gizarte-antolamendurako erakunde publikoak osatzeko aukera izan ohi dute. Bai erakunde publiko horien ekimena eta baliabideak

⁴⁶ SANCHEZ CARRIÓN, Joxe Mari.(1990). In: Hizkuntza hezkuntza. Los espacios de la desigualdad: Patologíasocial y conciencia lingüística, 12-51 orr. Eibarko Udala. EHU/UPV.

⁴⁷ Gizarteak euskara normalizatu nahi duela eta horretarako, norbera norberaren egunerokotasunean –familian, lanean, lagunenean...– euskaraz aritzeaz gain, euskara biziberritzen laguntzeko erantzukizuna sozialki ere, talde gisara, antolatzeke nahia azaldu du askotan (ikastolen mugimendua, euskarazko ikastereduen eskaera, Bai Euskarari...). Euskararen aldeko gizartearen ekimen hori, ordea, altxor bat izateaz gain, ezinbesteko zutabea dela ere esan dugu, eta beraz, indartsu jarrai dezan ahalegindu beharko genuke denok; bai erakunde publikoek, bai herritarrok ere. Euskarak, beste hizkuntza minorizatu gehienek baino indar gehiago izan du aspektu horretan eta barkaezina litzateke eragile horrek behar bezala ez funtzionatzea.

bai herritarren gogoia eta praktika noranzko berean jartzea da bide zuzena. Hainbatetan entzun izan dugun *elkarlana*⁴⁸, alegia.

Herritarren nahia eta prozesuaren baliakizunak ongi artikulatuz gero, euskaraz ez dakitenentzat *behar erakargarria* izatera iritsi behar du euskarak. Behar erakargarri horrek (euskara bizitzako zeregin gehienetarako baliozkoa izateak) bideratuko du bai ez dakitenek euskara ikastea, bai dakitenek hobetzea, bai eta batzuk zein besteek erabiltzea ere.

Elkarlanera itzuliz, J.M. Aymá-k⁴⁹ honela dio: *“L'actuació política, la del poble i la de l'estament econòmic són els tres eixos entorn dels quals volta el procés de normalització lingüística.”*

Alegia, hizkuntzaren normalizazioak hiru ardatz (eta agente) nagusi dituela: jardun politikoa, herriaren borondatea eta estamentu ekonomikoen ekimena.

Herriaren borondateaz, aurreko pasarteetan jardun dugu eta azken urteetan Lasarte-Orian ireki den bidean sakontzea izan liteke euskara biziberritzen jarraitzeko iparra. Euskararen aldeko pertsona eta gizarteko eragile ahalik eta gehien euskara sustatzeko ekimenean ahalik eta ondoen jardutea, alegia.

Jardun politikoaz, askotan hitz egin da herri honetan, eta zail da labur eta argi hitz egitea. Hala ere, saiakera eginez gero, esango genuke, herritarren borondate hori oinarri izanik, euskarak Lasarte-Orian osorik berreskuratzea lortzeko dituen premiak, lehentasunak, egitasmoak, bitartekoak... bideratu behar lituzkeela, horretarako behar diren erabakiak hartuz eta horretan eredu-emangarri izanez.

Erabakiak, ordea, hartu egin behar dira, eta euskararen onerako hartu ere. Horretarako, Euskararen Normalizazioari Buruzko Udal Jardunaldietan⁵⁰ jasotako irizpideak berreskuratu ditugu gidatzat:

- a) **Guztion artean hitzartua izatea.** Gizartearen adostasun handi bat lortu behar da, ahalik eta handiena, nork bere txokotxoan dituen interes partikularren gainetik Euskal Herriko gizartearen interes orokorrak jarrita. Konbentzimenduan, arrazoietan oinarritu behar da, gizartearen gehiengo euskararen aldera irabaziz.
- b) **Batu eta ez banatu egingo duena.** Hiztun-komunitate bakoitzak, bereari uko egin gabe, bestearen balioak errespetatu eta elkarrengana hurbiltzeko ahalegina egin beharko du. Elebitasuna da gaurko helburu hizkuntzazkoa. Hala ere, azpimarratu

⁴⁸ Lasarte-Oriaren kasuan, eredugarri ere gertatu izan da, adibidez, bai Ttakun Kultur Elkarrekin herritarren euskararen aldeko gogoia eta erantzukizuna artikulatzeko egin duen ahalegina, bai herritarren ekimen hori Lasarte-Oriako Udalaren baliabideekin hitzartuz gauzatu duen bidea. Bere jardun horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Abbadia saria merezi izan zuen 2000. urtean.

⁴⁹ AYMÁ, Josep M.(1992). *Alló que no se sol dir de la normalització lingüística*. Barcelona: Ed. Empuries.

⁵⁰ EUSKO JAURLARITZA, HPIN (1992).. *Euskararen normalizazioari buruzko udal jardunaldiak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

behar da, erdaldun elebarkar gehienek ere elebitasunaren aldeko diskurtsoa egiten duten arren, gaur egun, praktikan, elebidun bakarrak (ia bakarrak, hobeto esan, euskaldun berriak hor baitaude) euskaldunak direla.

c) **Tokian tokira egokitua.** Udalen hizkuntzazko plangintzak toki bakoitzera egokitua izan behar du. Fishman-ek, Bourhis-ek, Mitxelenak, Sánchez Carrión-ek eta abarrek esandakoetatik atera daiteke hizkuntzekiko politikak **egunerokotasunean** –lo cotidiano– oinarritu behar duela; euskararen erabilera eta presentzia hurbileneko gune ohikoenetan eta maizkoenetan sustatu eta finkatu behar dela; eguneroko (hizkuntzazko) portaeretan eragin handiena duten esparruetan, alegia...

d) **Orokorra, bakarra eta bateratua.** Hizkuntzazko jarduna ez da jakite hutsa. Oinarri-oinarrrian, giza portaera bat da, hainbat eragingarri eta kondizionagarri dituena: familia, eskola, aisia, lana, etab. Hizkuntzazko portaera aldatu nahi bada, gatzelaniaz hitz egitetik euskaraz hitz egitera pasatu nahi bada, alor horiek guztiak hartu behar dira aintzat.

Horregatik guztiagatik, hizkuntzen plangintza giza alor guztiak kontuan hartuz egin behar da. Alegia, euskara sustatzea ez da, ezin da izan, euskarako arduradunaren edo euskarako zerbitzukoenez kezka bakarrik; aitzitik, denon ardura eta egitekoa da. Norberak aztertu behar du bere lan-esparruan (ekintza kulturaletan, osasun-zerbitzuetan, garraioetan, kirol-eskaintzan...) zer egin dezakeen euskararen erabilera indartzeko. Hizkuntza benetan normalizatu nahi bada, euskararen aldeko inizatibak atera egin behar dira euskarako arduradunen ghettotik.

Horrekin batera, plangintza bakar bat eratu behar da, hizkuntzaren erabilera gizarteko arloz arloko jardun berezituetatik jardun bakar eta bateratuetera pasatu behar dugu. Konparazio batera, gazteek euskara erabiltzea bultzatu nahi bada, hizkuntzen plangintza hainbat esparrutan gauzatu behar da, hala nola eskolan, aisian, kulturazko ekintzetan, kirol-eskaintzetan, etab. Orokortasunak helburuen eta ekintzen koordinazioa eskatzen du, hiru mailatan eskatu ere:

- Udalen mailan, sail guztietako ekimenak bilduz.
- Udalerrien barruan (herri-mailan), inizatiba soziala sustatuz eta lagunduz.
- Udalerrien mailan –batez ere, udalerrriak txikiak direnean–, eskualdeko udalerrien ahaleginak bateratuz.

e) **Iraunkorra, efikaza eta malgua.** Euskararen normalizazioak, ekintza puntualak baino gehiago, neurri iraunkorrak behar ditu. Kontua ez da urtean hiruzpalau aldiz euskararekin gogoratzea. Euskarak egunerokotasuna irabazi behar du, bizitzaren ohiko uneak eta esparruak; anormalitatetik, salbuespenezko egoeratik

aterata. Ekintzek helburu jakinak eta neurtzeko modukoak izan behar dituzte. Era berean, plangintzak, momentuko egoerari hertsiki lotu behar bazaio ere, malgua eta behar diren aldaketak egiteko modukoa izan behar du.

f) Lortzeko modukoa. Euskalduntzeko planetan, edozein arlotan egiten direla ere, ezinezkorik ez zaio inori eskatu behar. Kontuan hartu behar dira euskararen ikaskuntzan eta trebakuntzan egokitutako epe eta baliabideak, norbanako eta kolektibo konkretuetan izan ditzaketen zailtasunak bezalaxe. Helburu lorkizunen atzetik doan neurrian izango da efektiboa euskalduntzearen ahalegina. Egiten diren urrats tinko guztiek eguneroko errealitatean oinarrituak izan behar dute.

Horrez gain, eta horri buruz, hainbat ñabardura idatz badaitezke ere, han jasotakoak nahikoak izan daitezke Lasarte-Orian urte batzuetan euskararen aldeko jardun politikoa zuzen eta efikaziaz bideratzeko.

J.M. Aymáren zitan, ordea, jardun politikoaz eta herriaren borondateaz gain, hirugarren zutabe bat ere aipatzen zen hizkuntzaren normalizazioak ezinbesteko dituen eragileen artean: **estamentu ekonomikoak** (enpresak, kooperatibak, sindikatuak...). Horiek duten garrantziaz diharduelarik, honela dio liburu berean:

"en el món actual, els poders econòmics tenen una influència abassegadora sobre la societat i les seves activitats a causa de la introducció contínua de noves normes de comportament, les quals estan lligades a la creació de necessitats que responen a l'oferta de més productes i serveis "

Produktuen eta zerbitzuen eskaintza eta eskaera da, gero eta gehiago, gure gizartea gidatzen duena, eta produktu eta zerbitzu horiek ez dira mutuak, hitz egiten dute. Beste hitz batzuekin esanda, hizkuntzarekin (hizkuntzekin) kontsumitzen dugu, eta hizkuntzari ematen diogun balioa hizkuntzarekin egiten dugun kontsumoaren eta gauzak egiteko balio digun heinekoa da.⁵¹

Beraz, edozein merkatutan bezala, eskaintzaren eta eskaeraren arteko lehiak ere gidatzen du euskararen erabilera. Eta, egia bada ere eskaintza handitu ahala eskaera ere handitu ohi dela, egia da berebat, bezerook (euskal hiztunok) euskaraz kontsumitzeko ohitura indartzen badugu, saltzaileak behar (erakargarri) horretara egokituko direla.

⁵¹ ROYO, Jesus (1991). *Una llengua és un mercat..* Barcelona: Edicions 62.

11.- Eranskina: irakaskuntzako datuak⁵²

3* urteko haurren matrikulazioa urtez urte

EREDUA	A		B		D		GUZTIRA
	Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak	%	
1980-1981	235	76,3	24	7,8	49	15,9	308
1981-1982	255	76,8	19	5,7	58	17,5	332
1982-1983	209	80,4	0	0,0	51	19,6	260
1983-1984	102	35,5	141	49,1	44	15,3	287
1984-1985	90	35,2	118	46,1	48	18,8	256
1985-1986	39	19,6	131	65,8	29	14,6	199
1986-1987	6	3,1	162	82,7	28	14,3	196
1987-1988	18	11,9	111	73,5	22	14,6	151
1988-1989	10	7,0	106	74,6	26	18,3	142
1989-1990	1	0,7	100	70,4	41	28,9	142
1990-1991	—	—	93	72,7	35	27,3	128
1991-1992	—	—	69	64,5	38	35,5	107
1992-1993	—	—	71	67,6	34	32,4	105
1993-1994	—	—	48	49,5	49	50,5	97
1994-1995	—	—	44	34,6	83	65,4	127
1995-1996	—	—	58	53,2	51	46,8	109
1996-1997	—	—	42	47,7	46	52,3	88
1997-1998	—	—	38	43,7	49	56,3	87
1998-1999	—	—	62	53,4	54	46,6	116
1999-2000	—	—	14	13,7	88	86,3	102
2000-2001	—	—	30	27,5	79	72,5	109

(*) 1983-84 ikasturtera arte 4 urtekoen matrikulazio-datuak biltzen dira.

⁵² LASARTE-ORIAKO UDALA. EUSKARA ZERBITZUA (2000). Unibertsitateaz behetiko irakaskuntza Lasarte-Oria. 2000-2001 ikasturteko matrikulazioaren datuak. Lasarte-Oria. Txosten argitaratu gabea.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako datu orokorrak urtez urte

EREDUA IKASTURTEA	A		B		D		GUZTIRA
	Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak
1980-1981	2.491	76,2	88	2,7	690	21,1	3.269
1981-1982	2.573	77,7	83	2,5	656	19,8	3.312
1982-1983	2.507	77,0	98	3,0	651	20,0	3.256
1983-1984	2.352	70,9	355	10,7	610	18,4	3.317
1984-1985	2.252	68,9	438	13,4	578	17,7	3.268
1985-1986	2.031	64,6	554	17,6	557	17,7	3.142
1986-1987	1.718	57,9	725	24,4	525	17,7	2.968
1987-1988	1.404	51,8	834	30,8	471	17,4	2.709
1988-1989	1.179	47,8	846	34,3	443	18,0	2.468
1989-1990	893	40,9	855	39,2	433	19,9	2.181
1990-1991	685	34,8	863	43,9	418	21,3	1.966
1991-1992	472	27,3	856	49,6	399	23,1	1.727
1992-1993	315	18,9	927	55,7	421	25,3	1.663
1993-1994	215	13,8	880	56,6	461	29,6	1.556
1994-1995	135	9,2	806	54,7	533	36,2	1.474
1995-1996	56	4,2	795	59,7	481	36,1	1.332
1996-1997	12	1,3	475	49,6	471	49,2	958
1997-1998	3	0,3	494	52,7	440	47,0	937
1998-1999	—	—	459	49,4	471	50,6	930
1999-2000	—	—	316	34,9	589	65,1	905
2000-2001	—	—	259	28,5	650	71,5	909

1980-81 ikasturtetik 83-84 ikasturtera 4 urtez gorakoen datuak daude sartuta.

1984-85 ikasturtetik 91-92 ikasturtera 3 urtez gorakoen datuak daude sartuta.


1992-93 ikasturtetik aurrera 2 urtez gorakoen datuak daude sartuta.

1996-97 ikasturtetik aurrera Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako datuak daude sartuak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako matrikulazioa urtez urte

EREDUA	A		B		D		GUZTIRA
	Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak	%	
1996-1997	14	4,9	184	64,1	89	31,0	287
1997-1998	23	5,8	249	62,4	127	31,8	399
1998-1999	25	4,9	309	61,1	172	34,0	506
1999-2000	31	6,7	273	59,2	157	34,1	461
2000-2001	12	2,9	249	60,4	151	36,7	412

1996-1997 ikasturtean DBHko 1. eta 2. mailak bakarrik zeuden, 1997-1998 ikasturtean DBHko 3. maila arte, eta 1998-99 ikasturteetik aurrera DBHko 4 mailak zeuden sartuta.

Derrigorrezko hezkuntzako datu orokorrak urtez urte

1980-1981 ikasturteetik 1983-1984 ikasturtera 4 urtez gorakoen datuak daude sartuta.

1992-1993 ikasturteetik aurrera 2 urteko haurren datuak ere sartu dira.

1995-1996 ikasturtera arte OHoko datuak ageri dira, eta 1996-1997 ikasturteetik aurrera Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoak (1996-1997an DBHko 2.era arte, 1997-1998an DBHko 3.era arte, eta 1998-99 ikasturteetik aurrera DBHko 4. maila arte).


Derrigorrezko hezkuntzako datu orokorrak urtez urte

EREDUA IKASTURTEA	A		B		D		GUZTIRA
	Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak
1980-1981	2.491	76,2	88	2,7	690	21,1	3.269
1981-1982	2.573	77,7	83	2,5	656	19,8	3.312
1982-1983	2.507	77,0	98	3,0	651	20,0	3.256
1983-1984	2.352	70,9	355	10,7	610	18,4	3.317
1984-1985	2.252	68,9	438	13,4	578	17,7	3.268
1985-1986	2.031	64,7	554	17,6	557	17,7	3.142
1986-1987	1.718	57,9	725	24,4	525	17,7	2.968
1987-1988	1.404	51,8	834	30,8	471	17,4	2.709
1988-1989	1.179	47,8	846	34,3	443	17,9	2.468
1989-1990	893	40,9	855	39,2	433	19,9	2.181
1990-1991	685	34,8	863	43,9	418	21,3	1.966
1991-1992	472	27,3	856	49,6	399	23,1	1.727
1992-1993	315	19,0	927	55,7	421	25,3	1.663
1993-1994	215	13,8	880	56,6	461	29,6	1.556
1994-1995	135	9,1	806	54,7	533	36,2	1.474
1995-1996	56	4,2	795	59,7	481	36,1	1.332
1996-1997	26	2,1	659	52,9	560	45,0	1.245
1997-1998	26	1,9	743	55,6	567	42,4	1.336
1998-1999	25	1,7	768	53,5	643	44,8	1.436
1999-2000	31	2,3	589	43,1	746	54,6	1.366
2000-2001	12	0,9	508	38,5	801	60,6	1.321

Bigarren Hezkuntzako datuak urtez urte

EREDUA	A		B		D		GUZTIRA
IKASTURTEA	Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak
1980-1981	564	100,0	—	—	—	—	564
1981-1982	588	90,3	—	—	63	9,7	651
1982-1983	819	90,3	—	—	88	9,7	907
1983-1984	868	84,3	—	—	162	15,7	1.030
1984-1985	1.008	86,0	—	—	164	14,0	1.172
1985-1986	1.105	82,9	—	—	228	17,1	1.333
1986-1987	1.136	78,7	—	—	307	21,3	1.443
1987-1988	1.172	79,4	—	—	305	20,7	1.477
1988-1989	1.193	79,0	—	—	317	21,0	1.510
1989-1990	1.229	76,0	—	—	389	24,0	1.618
1990-1991	1.219	72,0	—	—	474	28,0	1.693
1991-1992	1.164	70,1	—	—	497	29,9	1.661
1992-1993	1.118	67,3	24	1,4	518	31,2	1.660
1993-1994	1.064	64,3	49	3,0	542	32,7	1.655
1994-1995	869	57,1	101	6,6	552	36,3	1.522
1995-1996	762	52,2	169	11,6	528	36,2	1.459
1996-1997	611	38,5	376	23,7	602	37,9	1.589
1997-1998	520	35,7	327	22,4	611	41,9	1.458
1998-1999	427	33,8	327	25,9	511	40,4	1.265
1999-2000	188	22,0	273	32,0	393	46,0	854
2000-2001	152	20,5	249	33,5	342	46,0	743

(*) 1996-1997 ikasturtetik aurrera DBHko datuak ere atal honetan daude sartuta. Usurbilgo Lanbide Eskolako datuak ere sartuta daude 1998-99 ikastutera arte, 1999-2000 ikasturtetik aurrera ikastetxe horretako datuak ez daude sartuta.

Bigarren Hezkuntzako datuak urtez urte

Oharra: 1996-1997 ikasturtetik aurrera, DBHko datuak ere sartuta daude.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako matrikulazio-datuak urtez urte


EREDUA IKASTURTEA	A		B		D		GUZTIRA
	Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak	%	Ikasleak
1980-1981	3.055	79,7	88	2,3	690	18,0	3.833
1981-1982	3.161	79,8	83	2,1	719	18,1	3.963
1982-1983	2.843	78,2	98	2,7	693	19,1	3.634
1983-1984	3.220	74,1	355	8,2	772	17,8	4.347
1984-1985	3.260	73,4	438	9,9	742	16,7	4.440
1985-1986	3.136	70,1	554	12,4	785	17,5	4.475
1986-1987	2.854	64,7	725	16,4	832	18,9	4.411
1987-1988	2.576	61,5	834	19,9	776	18,5	4.186
1988-1989	2.372	59,6	846	21,3	760	19,1	3.978
1989-1990	2.122	55,9	855	22,5	822	21,6	3.799
1990-1991	1.904	52,0	863	23,6	892	24,4	3.659
1991-1992	1.636	48,3	856	25,3	896	26,4	3.388
1992-1993	1.433	43,1	951	28,6	939	28,3	3.323
1993-1994	1.279	39,8	929	28,9	1.003	31,2	3.211
1994-1995	1.004	33,5	907	30,3	1.085	36,2	2.996
1995-1996	818	29,3	964	34,5	1.009	36,2	2.791
1996-1997	623	24,5	851	33,4	1.073	42,1	2.547
1997-1998	523	21,8	821	34,3	1.051	43,9	2.395
1998-1999	427	19,4	789	35,9	982	44,7	2.198
1999-2000	188	10,7	589	33,5	982	55,8	1.759
2000-2001	101	6,6	492	32,2	936	61,2	1.529

1980-1981 ikasturtetik 1983-1984 ikasturtera 4 urtez gorakoak datuak daude sartuta.

1984-1985 ikasturtetik 1991-1992 ikasturtera 3 urtez gorakoak datuak daude sartuta.

1992-1993 ikasturtetik aurrera 2 urtez gorakoak datuak daude sartuta.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako matrikulazioa urtez urte





LASARTE-ORIAKO
UDALA

